

aroa

2024—
2034

euskara
indarberritzeko
eta euskaldunok
ahalduntzeko marko
estrategikoa

marko estrategikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ar**o**a

euskara
indarberritzeko
eta euskaldunok
ahalduntzeko marko
estrategikoa

2024-2034

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>.

Argitaraldia: 1.a, 2024ko uztaila

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus/argitalpenak

Egiletza: Euskararen Aholku Batzordea

Koordinazioa eta testuak egokitzea: Ane Crespo Calvo
Jone Aboitiz Legarra
Hiart Legarra Uruburu
Elene Etxezarreta Etxeberria


Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Gráficas Irudi, SL

ISBN: 978-84-457-3771-2

Lege Gordailua: LG G 468-2024



Aurkibidea


Hitzaurrea

Iñigo Urkullu Renteria
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

7

aroa

1. Aurkezpena	11
2. Sarrera	15
3. Egoeraren diagnostikoa	27
3.1. ESEPen araberako diagnostikoa	27
3.2. AMIA	27
4. Arlo estrategikoa	35
4.1. Nahi estrategikoa	36
4.2. Misioa	36
4.3. Ikuspegia	36
5. Arlo operatiboa	39
5.1. Ardatz estrategikoak, erronkak, lan-ildoak eta ekimenak	40
Ardatza: Gobernantza	42
Ardatza: Jarrerak / Motibazioak	49
Ardatza: Ezagutza / Gaitasuna	53
Ardatza: Erabilera / Elkarreragina	59
Ardatza: Berrikuntza	62
Ardatza: Ikerketa / Sistematizazioa	63
Ardatza: Komunikazioa / Hedapena	65
6. Jarraipena eta ebaluazioa	69
7. Aroa osatzeko prozeduraren azalpena	73
8. Bibliografia	79



Hitzaurrea

IÑIGO URKULLU RENTERIA

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

2023an, Euskal Autonomia Erkidegoko VII. Inkesta Soziolinguistikoak jakitera eman digu gaur egungo errealitate soziolinguistikoa: gero eta euskaldun gehiago gara EAEn 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean. 680.629 euskaldun gara, 1991n baino 261.000 gehiago; 12 puntuko hazkundera gertatu da.

Horixe da datua. Euskararen indarberritze prozesua hazkunde bidean da, zalantzarik gabe. Azken hamarkadetan egin den bideak emaitza onak izan ditu. Euskara gero eta hizkuntza gazteagoa da, eta pixkana-pixkana lekua irabazten ari da gizartean. Etxeko edo ikastetxeko espazioez gain, eskolaz kanpoko jardueretan, kirolean edo lanean euskarak izan duen lekua handitzen ari da. Gure gizartea euskara sustatzearen alde dago, eta horrek lagundu digu hizkuntza-politika publikoak garatzen, eta gizarte mugimenduarekiko lankidetzan aberastu gara.

Paisaia honetako begirada zabalduz, alde eta molde ezberdinetako errealitateak ere baditugu, eta jakina da, oraindik euskararen indarberritze bidea egiten jarraitzea ere badagokigu: herritarren hizkuntza eskubideetan sakontzeko, baita euskarak leku sozial normalizatua erdiesteko ere.

Datozen legealdietan, ereindako asmo zahar zein berriak zaindu eta elikatzea egokituko da.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana berritzera datorren *Aroa*, *euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa* izango da horretarako helduleku garrantzitsu bat. XXI. mendeko gizartearen beharrei erantzuteko bide-orri sendoa, Euskararen Aholku Batzordeak eta Gobernu Batzordeak onartua.

Aroa marko estrategikoak aipatzen duen testuinguru eleaniztuna eta hitzunen ahalduntzea gizarte anitz eta askotarikoan kokatzen du. Etorkizuneko mundu mailako erronka sozialak ere, besteak beste, gizarte inklusioan oinarrituko dira. Euskarak aniztasunaren kohesioari ekarpena egiteko bidea egitea proposatzen da. Euskararen indarberritzea hitzun mota askotarikoen onarpenera eta aintzatespena eginez gauzatzea


azpimarratzen du, baita gure gizartearen erronkekiko lerrokatuta dauden politikekin bat egitea ere: ingurumenarekiko arduraren, jasagarritasuna eta iraunkortasuna, genero berdintasuna, gizarte inklusioa, eta abar.


Aroaren bokazioa da gizarteak dituen behar berriei erantzutea, eta horretan, gobernantza ereduaren gainean egiten den proposamena azpimarratu nahiko nuke. Alde batetik, euskararen eremuan eragile diren ordezkari instituzional eta sozialei egiten zaie erreferentzia euskararen eremuko politiken lehentasunak zein ekimenak proposatuz. Bestetik, euskararen zeharlerrotasunak hartu du leku garrantzitsua. Gizarte eremu osoaren erronken baitan euskararen indarberritzea txertatzeko gobernantza ereduak proposatzen da.

Gainontzeko instituzio, elkarte zein beste mota bateko eragileek euskara indarberritzeko plana egitean, *Aroa* dokumentuan aurkituko dute kudeaketa aurreratuan ardatzen den egitura eta metodologia malgua. Proiektu estrategikoak elkarrekin eta elkarlanean aurrera eramateko egiturak sendotu eta metodologiaren aldeko apustua egiten du, eta begirada zabaltzen du hizkuntza-politikatik harago dauden gizarte arloetako politiken arteko lankidetzara.

Aroaren garaia iritsi da. Etorkizun emankorra opa diogun guztiontzako bide-orri bateratua dugu hemen. Euskararen geroa gero eta oparoagoa izan dadin sortua den lanerako marko bateratua. Nire esker eta zorionik beroenak, batera edo bestera, ekarpena egin duzuen guztioi.







Aurkezpena

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA

EABren ESEP Berritzeko Batzorde-atal Bereziaren zuzendaria

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) EAEko erakunde publiko guztientzako plan gidari gisa sortu zen 2012an, 10 urteko iraupenarekin. 2022an, aurreikusita zegoen bezala, plana berraztertze eta eguneratzen hasteko unea iritsi zen. Eginkizun horri heltzeko, 2022ko maiatzean abiatu zen ESEP berritzeko Batzorde-atal Berezia, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordearen (EAB) baitan sortutakoa. Batzorde-atal berezi horrek bi urteko zeregina zuen: 2022an, pentsamendu estrategikoa jorratzea eta, 2023an, plangintzarako eduki operatiboak zehaztea.

Horrez gain, alde zuzenetik egindako lan batzuek makulu egokia eskaini dute ESEP berritzeko urratsetan. Zenbait lantalderen eta adituen eskutik jasotako lan horietan, euskararen inguruko azken hamarkadako hainbat informazio izan da aztergai, hala nola: euskararen egoeraren diagnostikoa (*10 urteko ibilbideari begirada – ESEPen arabera diagnostikoa*, HPS – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), EAEko herritarren iritziak, pertzepzioak, usteak, eta abarrek (Euskararen normalkuntzaren aukerak eta erronkak – gazteen eta udal teknikarien pertzepzioak, ALC - Agirre Lehendakari Center; eta Euskarari buruzko iritziak – SOZIOMETROA, Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea); bai eta, gazte jendearengan modu berezian fokua jarri duen ekimena ere, *Etzigarriak* izenekoa, Itxaso Payák gidatutakoa.

Aurreko erreferentzietan gain, gainera, mundu mailan agertzen ari diren joera berriei ere erreparatu zaie, euskararen bilakaeran hurrengo urteetan izango luketen eragina antzemateko asmoz.

Ibilbide horretan beren-beregiko dinamikak antolatu dira, non hainbat adituk, jarrera ezin positiboagoa erakutsiz, ekarpen mamitsuak egin dituzten. Horietan, aipaturiko ESEP berritzeko Batzorde-atal Bereziak ez ezik, HPSko talde teknikoak eta zuzendaritza taldeak, HAKOBAko ordezkariak zein teknikariak, Euskararen Aholku Batzordeko kideak eta eremu jakin batzuetako beste zenbait adituk ere hartu dute parte.

Aintzat hartu diren mota askotariko informazioen kontrastea bidelagun guztien eskutik egin eta haien laguntzarekin euskararen AMIA analisia osatu da. Horrela, diagnosi fasea itxiztat jo da. Jarraian, estrategia pentsatu eta osatzeari ekin zaio, helburu argi batekin: ESEP ordezkaturako duen plan berri bat eraikitzea.

Prozesuaren bigarren fase horretan, plangintza-diseinuetan ohikoak diren kontzeptuetara jo da: nahi estrategikoa, misioa, ikuspegia (edo bisioa) eta balioak. Eta, horiek ipar hartuta, segidan ekin zaio eremu operatiboko hiru mailak lantzeari: ardatz estrategikoak, erronkak eta lan-ildoak. Hala ere, halako edukiak ez dira era zurrin eta uniformean pentsatu

eta garatu. Aldiz, bakoitzak bere ezaugarrien arabera kudeaketa-planak egiteko edo osatzeko eran lan egin da. Edonork bere burua (egoera) hor aurkitu eta lanerako tresna edo abiapuntua izan dezan; zehatzago esanda, eremu soziolinguistikoari, biztanle kopuruari edota biztanleen jatorriari erreparatu zaie, kasuan-kasu, planteamendurik emankorrena bilatzeko.

Lanketan zehar egindako bidez eta **Aroa** bataiatu dugun proposamenaren emaitzez nolabaiteko gogoeta baloratiboa egiteari lotuko natzaio hurrengo lerroetan.

Aipagarria da prozesuaren hasiera-hasieratik bukaerara arte baliatu den kudeaketa eredu irekia, zeinak hainbat sentsibilitate eta eremutako ordezkari atek zabaldu dizkien (gobernantza eredu berriaren ildotik, nolabait), eta horren baitako bidaideen parte-hartze ugaria eta zintzoa izan da. Partaidetza askotarikoa izan da eta inplikaturako guztien jarrera beti proaktiboa. Ekarpinak, mamitsuak bezain emankorrak izan dira. Hartara, kudeaketa-mota zein partaideen erantzuna prozesuaren indargune bihurtu dira.

Badaude, hala ere, lausotuak gelditu diren puntuak, erabat ilunak izatera iritsi gabe. Edukiei dagokienez, aitortu behar da hain ekarpen aberats eta mamitsuak oso-osorik jasotzeko topatu diren mugak. Eremuan eremuko aditu direnen proposamen zehatz batzuk, arretaz aztertuak izan ondoren, ez dute lekurik izan; penatuta, baina gorde egin behar izan ditugu diseinuan txertatu gabe. Izan ere, arloan arloko interbentzio-maila zehatzetara iristea lanketa honen mugetatik kanpo dago. Gure zeregina maila operatiboa garatzearen atarian amaitu da, betiere arlo bakoitzean ardura formalak dituzten erakunde eta eragileentzat oinarritzko erreferentziak edo operazionalizaziorako irizpideak eskaini eta gero.

Era berean, lanaren hutsuneak edo ahuleziak aipatzean, ez da lan nahikorik egin gaur egun ere hemen daukagun ingurune digitalaren ikuspuntutik. Are nabarmenagoa da oraindik, bihar-etziko

mundu birtualeko edukien aipameneen eskasia. Bestela esanda, jasotako edukiak eta landutako planteamenduak, lekutan gelditu dira etorkizunean nagusituko zaizkigun garapen berrietatik. Oinak gaurkoan jarrita egin dugu lan eta, ahaleginak ahalegin, zaila gertatu zaigu balizko mundu berri baten aurreikuspena guztiz osatzea.

Halaber, ziztu bizian aldatzen den egungo gizarte likidoaren hurrengo hamarkadako baldintzak eta premiak nolakoak izango diren gaur-gaurkoz ez dago zehazterik; are gutxiago maila operatiboan. Izan ere, gizartean ustekabeko agertoki, baldintza eta eragile berriak etenik gabe joango zaizkigu agertzen. Horren ondorioz, aurrera begirako bide-orria gauzatzeko zailtasun edo muga garbiak antzeman ditugu.

Mugak muga, *Aroa* bide-orri edo proposamenak badu aurrera egiteko aukera polita. Izan ere, markoa garatzean esku-hartze sendo eta jarraitua izan duten bidelagunen aldetik, tankera bereko erantzuna espero da hemendik aurrera ere; alegia, prozesuak izan duen bulkada zein babes-maila berarekin hurrengo hamarkadan ere kontatu ahal izatea. Sarean antolatuta eta elkarlanean bidaide, gainera.

Horrezaz gain, eta gizarte aldaketaren abiaduraz jakitun, diseinuaren egungo bertsioak moldaketa premiak izango ditu epe laburrean. Horregatik, markoaren aplikazioa monitorizatzeko beharra ere jaso da diseinuan; hau da, bide-orriaren eragin-kortasuna bermatzeko, tarteka errebisioa egin eta zenbait eduki egokitu beharko dira. Horrek lagunduko du bide-orriaren eraginkortasuna maila egokian mantentzen.

Bukatzeko, ezin da aurkezpen hau itxi nire eskerrik beroenak adierazi gabe, bai HPSko arduradun politikoei nigan jarritako konfiantzagatik, baita prozesuan zehar parte hartu eta ekarpen aberasgarriak egin dituzten guzti-guztiei ere. Eta oso modu berezian, nola ez, Talde Eragilea osatu duten HPSko eta LKSko lagunei.)







Sarrera

EUSKARA

Pirinioen alde banatan mintzatzen den hizkuntza aurre-indoeuroparra da euskara. Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak eman dizkigun datuen arabera, munduko 7.000¹ hizkuntzen arteko bat. Europako hizkuntza guztien artean, bat.

Hizkuntza handi eta hegemonikoekin batera bizi eta iraun duena. XX. mendeko hizkuntzalari eta euskalari handienetakoa izan zen Koldo Mitxelena Elissaltek esan zigun moduan, euskararen jatorria baino harrigarriagoa da bizirik iraun izana. Eta horretantxe

1. Erreferentzia eguneratuenak Ethnologuerena eta Unescorenak dira. Ethnologuek eskaintzen dituen azken datuen arabera, 3.054 dira arriskuan dauden hizkuntzak, eta 7.168 erabiltzen direnak (Eberhard, David M.; Gary F. Simons; Charles D. Fennig (arg.) 2023. *Ethnologue: Languages of the World. Twenty-sixth edition*. Dallas, Texas: SIL International. <http://www.ethnologue.com>). UNESCOren hizkuntzen atlas berriaren arabera, 2.500 dira arriskuan dauden hizkuntzak munduan (<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000189453>).

Euskara, munduan hitz egiten den 7.000 inguru hizkuntza horietako bat da, baina gainera, Unescok identifikatutako arriskuan dauden 2.500 hizkuntza horien artean dago (kaltebera gisa agertzen da).

Stuban-Kangas ikertzailearen arabera, ahozko hizkuntzez gain (6.000 inguru), zeinu hizkuntzak ere kontuan hartuz gero, 11.000 ere izan litezke munduan dauden hizkuntzak (Stunab-Kangas, Tove (2000). *Linguistic Genocide in Education—Or Worldwide Diversity And Human Rights?*)

jarraitzen dugu; euskararen indarberritzea behin eta berriro eraikitzen.

Euskal Herrian, milioitik gora hiztunek osatzen dugu euskararen komunitatea. Munduan hiztun gehien dituen hizkuntzetako batekin batera, gaztelaniarekin² batera, Euskadin, ofiziala da euskara. Gutxiagotasun egoeran badago ere, mendez mendeko indarberritze prozesuan jarraitzen du, hizkuntzen eta kulturen arteko bizikidetzatza-adostasuna zein elebitasun orekatua bilatuz, eta euskararen indarberritzea bestelako eremuetan garatzen ari diren indarberritze prozesuen (genero berdintasuna, arrakala soziala, ekologia...) bidelagun izanez.

Euskarak XX. mendearen bigarren zatian izan duen bilakaera positibo eta bizkorra azpimarratzea zilegi zaigu. Izan ere, euskal gizarteak eta erakundeek egindako ahaleginari esker, azken lau hamarkadotan goranzko bidea egin du euskararen komunitateak: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) euskaldunen kopurua eta ehunekoa bikoiztu egin da. 1981ean 450.000 euskaldun izatetik, 940.000 izatera igaro gara. Munduan ezagutzen ditugun hizkuntza gutxiagotu gehienen errealitatea izan ohi den bezala, lehen, adinekoak ziren gehienbat euskaldunak, eta horietako

2. Lehen hirurak: txinerak ditu 918 miloi hiztun; espainierak 480; ingelesak 379.

gehienek etxean jaso zuten euskara. Gaur egun, aldiz, euskara hizkuntza gaztea da; gazteek dakite euskara gehien eta erdiek nagusiki eskolan ikasten dute hizkuntza. Bilakaera honen arrazoi nagusiak? Bereziki, euskararen aitorpen ofiziala, gizarteak euskara sustatzearen alde izan duen jarrera baikorra, hezkuntza sistemak egin duen lana eta helduen euskalduntzea.

EUSKARAREN ARAUBIDEA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZAKO TRESNAK

Horretan garelara, 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa, ezinbesteko tresna izan da herritarren eskubideak eta herri administrazioaren betebeharrak zehazteko, eta ildo horretatik, euskararen gaineko hizkuntza-politika berezituak administrazioetik bideratzeko. Azken lau hamarkada hauetan hizkuntza-politikaren zeregina izan da emakume zein gizon elebidunen hizkuntza eskubide horiek bermatzeko baliabideak sortu zein aplikatzea, euskara herritarren bizitzetako eremu eta une guztietan erabili ahal izateko.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak, aipatu dugunez, botere publikoen betebeharrak eta herritarren eskubideak ezartzen ditu, hala nola, administrazioarekin edo beste edozein erakunde edo entitatearekin euskaraz edo gaztelaniaz harremanetan jartzeko eskubidea; irakaskuntza bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea; euskarazko argitalpenak, irrati- eta telebista-programak eta beste komunikabide batzuk jasotzeko eskubidea; lanbide-, lan-, politika- eta sindikatu-jarduerak euskaraz egiteko eskubidea eta edozein bileratan euskara erabiltzeko eskubidea, besteak beste.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak ezarritako betebeharrak betetze aldera, arau ugari bideratu dira (legeak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak), gizartearen esparru askotan.

- Hezkuntza arloan, aipagarriak dira Hizkuntza-ereduen Dekretua (1983), Hezkuntza Publikoaren Euskal Legea (1993), Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Legea (2016) eta 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.
- Euskara helduaroan ikasteko eskubidea bermatzeko, HABE sortzeko Legea (1983) aipatu behar da.
- Komunikabideen alorrean, Irrati eta Telebistaren Euskal Legea (1982) batetik eta Tokiko irrati- eta telebista-lizentziak emateko Dekretua (2011), bestetik, dira aipagarri.
- Eremu sozioekonomikoan, 2003ko Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutua, horren garapena den Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretua (2008), eta 2003ko Estatutua ordezkatzera datorren 4/2023 Legea, apirilaren 27koa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuarena.
- Administrazioa eta zerbitzu publikoen alorrean ere arau ugari bideratu dira: 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena (2022); 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko; 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoa zein lege hori garatzen duen 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, besteak beste.

Lege, dekretu eta bestelako arau juridikoez gain, badira euskararen indarberritzearen prozesuan garrantzia izan duten hizkuntza-plangintzakotresnak, batez ere hizkuntza-politika arloan administrazioaren

jarduna antolatzeko, koordinatzeko eta jarraitzeko balio izan dutenak.

🕒 **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN 1998-2012)**

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea helburu zuen plangintza estrategikoa. Funtsean, Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea zuen helburu lehenengo plan estrategikoak. Hiru lan-esparru edo helburu estrategiko zituen EBPNk: euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea, lehenengoa, euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea, bigarrena, eta, euskara bera, komunikazio-tresna den aldetik, lantzea eta aberastea, hirugarrena.

🕒 **Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP 2012-2023)**

“Euskara 21” izeneko gogoeta-prozesua mende hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak finkatzera etorri zen 2008 eta 2009an. Gizartearen parte-hartze zabala izan zuen prozesu hark, eta, beste batzuen artean, EBPN berrikustea ekarri zuen. 2009an, Eusko Legebiltzarrak, legez besteko proposamen bat tarteko, bere onarpena eman zion “Euskara 21” prozesuaren emaitzari. EBPN berrikusteko bidean, beraz, *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana* osatu zen, Euskararen Aholku Batzordearen hilabeteetako lanaren ondoren. Erabilera bultzatzeko, hiru zutabe zehaztu zituen ESEPe: hizkuntza eskubideen aitortpena eta babesa, alde batetik; euskararen hitun-elkartearen dimentsioa bera, bestetik; eta, azkenik, euskararen eta euskal kulturaren erakargarritasuna. Oinarritzko hiru osagai horiek, beste batzuekin batera, plan horren helburu

estrategikoetan eta dagozkien ekintza lerroetan zehaztu eta garatu ziren.

🕒 **Euskararen Agenda Estrategikoa(k)**

EBPN eta ESEP plan estrategikoekin batera, legegintzaldi-plangintzak ere aipatu behar dira. Euskararen Agenda Estrategikoek jasotzen dituzte, maila operatiboan, legealdi bakoitzean Eusko Jaurlaritzaren helburuak eta lehentasunak, bai administrazioari berari begira, bai gizarte osoari begira.

🕒 **Erabilera Planak**

Agendekin batera, sektore jakinetan indarrean dauden planak aipatu behar dira. Batetik, elebitasun orekatua lortzeko, euskal administrazioetan euskararen erabilera planak azpimarratu behar dira: euskararen erabilera planak Osasun Zerbitzu Publikoan; Ertzaintzan; Justizia Administrazioan; Euskal Herriko Unibertsitatean; EITBn; eta sozietate publikoetan abian diren planak.

Bestetik, azken urteotan abian jarri diren planak daude, gizartearen estrategikoak diren eremuetarako: *Euskara Esparru Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana* (2020-2023), *GAITU Hizkuntza-teknologiaren ekintza-plana* (2021-2024), eta *Euskara Kirolean Sustatzeko Plana* (2021-2024).

Aipatu ditugun une eta mugimendu horien denen elementu bateratzaile bat hauxe izan da: hizkuntza-politika instituzionalaren eta sozialaren etengabeko egokitze prozesuetan murgildu izana. Garaian garaiko beharrei erantzun dieten erabakiak hartu eta tresnak ezarri izana.

1998an eraiki zen *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* (EBPN) eta 2012an onartu zen *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana* (ESEP) izan dira orain arteko ikuspegiaren bide-orri nagusiak, eta Aroa dugu kate-begi haren hurrengo lokailua, eragile publiko zein pribatu guztientzako marko bateratua, hamarkada

baterako begiratuan euskara indarberritzeko egiteko adostuak ezartzen dituen. Ez da plana; marko estrategikoa da. Euskaratik gizarte eraldaketari ekarpena egin nahi dion proposamena. Zertarako? Euskal hiztunak sortu eta ahaldundu daitezen, gizarteko sektore indartsu nahiz ahulenei aukera berriak eman dakizkien, eta munduko hizkuntza aniztasunaren baitan gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboago bat eraikitzen lagun dezagun, hau guztia euskal hiztunak ez diren herritarrak aniztasun horretara erakarriz eta, herritar gisa ofiziala den bere hizkuntza-hautua errespetatuz.

AROAREN AROA

Aroa sortu da XXI. mendeko aro postmoderno eta globalizatuaren zurrumbilo bete-betean. COVID 19aren pandemia igarotze atarian. Planetaren berotze globalaren eraginpetik etorri diren erronka eta egiteko berrien aurrean. Mundu mailako ziurgabetasun politiko, sozial eta ekonomikoaren ardatzean mugitzen diren elementuen eraginpean, hain zuzen. Ekonomiaren desegonkortasuna, klima aldaketa, mundu mailako botere banaketaren aldaketa, Estatu eta herrien arteko gatazka armatuak, energia krisia, harremanetan jartzeko eta bizitzeko modu digital berriak...

Ingurune digitalak pertsonen arteko harremanak ugaritu eta aldatu ditu. Aurrez aurreko edozein egoeratan digitalki eraikitzen ditugu harremanak; euskaraz edota beste edozein hizkuntzatan komunikatzeko harreman kode berriak sortzen ari gara. Harreman sare digitalak mundura zabaltzen gaitu edozein unetan, eta beraz, gero eta konektatuagoak gaude mundu mailako edozein pertsona eta erakunderekin. Informazio kantitate handiaren jasotzaile eta eramaile bihurtu gara. Gero eta aurreratuagoak diren hizkuntza teknologiek hizkuntza ezberdinak ezagutzen ditugunon arteko

harremanak ahalbidetzen badituzte ere, Europako hizkuntza nagusietan edo munduko hizkuntza hegemonikoetan sortu eta jasotzen dugu informazio edota eduki handiena.

Ezinbestean, gizakion arteko harreman modu berriak sortzen ari dira, dagoeneko. Aurrez aurrekoak zein digitalak. Eta hizkuntza aniztasuna inoiz baino presentzia handiagoa izaten ari da.

Horrek guztiak, besteak beste, integrazio globala ekarri du. Eta harekin batera, gizarte berri honen ezaugarri ezagunenak: pentsamenduaren homogeneizazioa, indibidualismoa, pertsonen lehentasunak aldatzea, balio aldaketa, zainketa lanen krisialdia, diskurtso populisten gorakada, boterearen zentraltasuna, demokraziaren ahultze prozesua...

Gizarte joeren azterketek diote hiritartze prozesu bizkor bat nagusitzen ari dela planetan. Hirietan bizi da pertsona gehien, baita euskaldun gehienak ere, eta badirudi hirirantz bateratzeko joerak jarraitu egingo duela XXI. mende osoan zehar. Hiri bizitzak garrantzia hartuko du: hirien arteko eta hiri barneko konektagarritasuna hobetzeko zirkulazio bideak erraztuko dira lurralde antolamendua horretara jarritz eta teknologia berriek ematen dituzten aukerak baliatuz.

Zahartze prozesu bizkorra ezagutzen ari den gizarte honi egokituko zaio hirugarren adinaren arloko politiketan eragiteko estrategiak eta baliabideak lantzea. Bizitza osoan zehar zaintzari lotutako beharrari erantzutea. Bizi luzeetara bideratutako hiriak behar beste baliabidez hornitzea; *smart* tresnak leku nagusia hartzen ari dira pertsonen arteko harremanetan, produkzio nahiz erreprodukzio kateetan, baita hezkuntzan edota pertsonen zaintzan ere.

Lurralde barneko zein lurralde arteko migrazio mugimendu ugarien ondorioz, kultura eta hizkuntza ugaritako herritarren arteko bizikidetzan sakontzeko bidea egitea egokituko da, hirietan klase sozialen

arteko arrakalak are gehiago ugarituko diren zantzua dago, eta kultura aniztunagoak nahiz eleaniztunagoak izango gara.

Hizkuntzetan arreta jarrita, hizkuntza hegemonikoen zentraltasuna nabarmena da dagoeneko, harreman sozioekonomiko nahiz digitaletan. Hizkuntza txiki nahiz gutxitu asko eta asko lekua galtzen ari da bere lurrian, eta hizkuntza askok ez du ingurune digitalean dagokion lekua eskuratu. Munduko hizkuntzen azken atlasaren arabera (2010, 2. arg), XXI. mendean munduan dauden 7.000 hizkuntza ingurutik³ 2.500 hizkuntza daude galzorian. Hitzun kopuru txikia eta errealitate sozioekonomiko ahulena duten hizkuntzak desagertzera kondenatuta daude.

Europako hizkuntza- nahiz kultura-aniztasuna ere bakandu, eta gero eta homogeneoagoa izateko arriskua ere badugu. Europako estatu askotan, nazioarteko harremanetarako baliatzen dugun ingelesa lekua hartzen ari da pixkanaka-pixkanaka gure harreman eta lan hizkuntza gisa ere. Nazioarteko hizkuntza frankoa gero eta hurbilagoa da eta hizkuntza ordezkapenak ari dira gertatzen zenbait herrialdetan. Hitzun asko dituzten hizkuntza handiak zein hitzun gutxidun txikiak: inor ez dago arrisku honetatik kanpo.

Aniztasun eta aberastasun kultural eta linguistikoa, besteak beste, galtzen ari da mundu mailan. Hizkuntzekin batera, komunitateen galera, beraz, izan eta ekiteko moduen galera. *Aroa* markoak justizia, eskubide zibil eta balio demokratikoen babesa sustatuko du euskaratik munduko hizkuntza aniztasunaren defentsan egin genezakeen ekarpena aintzat hartuz eta eraginez.

Nazio Batuetako Erakundearen *Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan* zehaztutako helburuetan 4. helburuari (kalitatezko hezkuntza) eta Unesco

Katedraren proposamenaren 17+1 helburuari lotuko gatzazkio *Aroan* ere: hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren bermea lortzea. Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta aintzatespena bermatzea pertsonen eta gizartearen garapenerako. Hizkuntza aniztasunaren trataera lantzea da 18. helburua, guretzat. Giza eskubiderik oinarritukoena da norbere izatea errespetatuz bizitzeko aukera izatea, eta hizkuntzak leku garrantzitsua du horretan. Zalantzarik gabe.

Ziurgabetasun betean gauden garai hauetan, giza garapen sozialaren aldeko mugimendu soziopolitikoak ere leku esanguratsua hartzen ari dira: emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko politikak erdigunera eramateko konpromiso politiko zein soziala gero eta agerikoagoa da. Gizarte politikak ezinbesteko bihurtu dira aniztasuna kudeatzeko eta zahartze bidean dagoen gizarteak dituen behar berriei erantzuteko. Aniztasun soziokulturala onartu eta oinarritzeko giza eskubideen aldeko mugimenduak urrats berriak ematen ari dira. Hiri jasangarriak berreraikitzeke baliabideetan sakontzen ari gara, planetaren arnas berritzearen aldeko neurri soziopolitikoek gero eta leku handiagoa dute, lanaren eta lan harremanen duintasunari begira arreta handiagoa jartzen ari gatzazkio. Gero eta gizarte justuago eta jasangarriago baterantz abiatzeko joerak dira beste hauek ere: sexu-genero aniztasunarekiko errespetua, arrazakeriaren kontrako kontzientziazio lana, pertsonen zaintza erdigunera eramateko aldarriak...

EUSKARA ARO BERRIAN

Aldakortasun betean dagoen gizarte honetan, zein ekarpen emankor egin geniezaioke euskaratik munduari? Gizarte eraldaketarako eragile izatea. Euskara nahiz euskal kultura mundu berri honetan lekutzeko ahalegina eginez, munduko aniztasunari

3. Ikus 1. oin-oharra.

ekarpena egitea gizarte justu eta ekitatibo bat sortzeko.

Euskararen alde egindako ibilbide historikoak erakutsi digu aniztasunean aurrera egitea dela etorkizuneko erronkei aurre egiteko biderik eraginkorrena. Hizkuntzen arteko bizikidetzan eta gutxiagotasun egoeren zaintzan Europa kultural eta eleanitzaren alde egitea aniztasuna onartu eta kudeatzea da; nortasun propio bakoitza balioan jarri eta polikromia balio positibo modura erakustea. Edozein ekosistematan jasagarriena delako aniztasuna kudeatzea, gutxiagotasun egoeran dauden elementuak babestu edota zaintzea.

Baina ez da nortasun, sentimendu edota eredu kontu bat bakarrik. Justizia, lege eta eskubide kontu bat ere bada. Euskara hizkuntza ofiziala da Euskadin, gaztelaniarekin batera. Gure helburua da European ere euskara hizkuntza ofiziala izatea.

Izan ere, hizkuntza oro bezala, euskara komunikatzeko tresna da euskal elebidunon artean.

Euskara bada, horrez gainera, elkarbizitzarako eta gizarte inklusiboago eta kohesionatuagoa eraikitzeko tresna ere; euskara ez baita, XXI. mendean, etxean jasotako hizkuntza bakarrik. Euskal komunitatea osatzen dugu euskara etxean nahiz etxetik kanpo jaso edota erabiltzen dugun guztiok. Euskara ulertu eta erabiltzen dugunok. Euskara erabiltzen laguntzen dugunok. Euskara ezagutzen dugunok. Euskararen komunitatera hurbiltzeko daudenak... Euskaldun izatearen definiziorik zabalenera keinu egiten diogunok.

Kultura soziolinguistiko berri baten atarian gaude. Elebitasun orekatuaren bila doan gizarte eta gainera, hiztun eleaniztunen aniztasuna aintzat hartu nahi duena. Euskara erabili eta haren alde egiteko aukera askotarikoak bere egiten dituena. Euskarazko harreman erosoak sortzea da helburua. Babesguneak, euskaraz aritzeko testuinguru babestuak: parte

hartzen duten guztiek kontuan hartzen dituzte euskaraz aritzeko aukera eta ahalmen askotarikoak, eta hizkuntza-estresik gabeko harremana sortzeko baldintzak eraikitzen dira. Hitzunari eta hizketaldiari balioa ematen zaio edozein delarik ere bere jarrera edo ahalmena.

Euskara hedatu nahi dugun neurrian euskaraz jakin edo ez dakitenen pertzepzioan sakontzea dagokigu; pertzepzio eta behar guztiak hurbiletik ezagutu; guztion nahi eta itxaropenak kontuan hartuz aurrera egin.

GOBERNANTZA

Aurrez aipatu moduan, *Aroa* gizarte honen beharrei erantzun nahi dien marko estrategikoa da. *Aroak* euskaratik ere gizarte eraldatzeko tresna izan nahi du, euskararen **ekosistema** osoan eragina izan dezaketen erronkak definituz eta bere eginez, euskararen hizkuntza **komunitatea** zabaltzeko eta ahalduntzeko bidean. Horrela, balio nagusi hauek ditu: oroz gaindi, **adostua**, **egingarria** eta **eragingarria** izatea. **Hizkuntza-ekologiaren** begiradatik **aniztasuna** kudeatzea (eleaniztasuna; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna). **Justizia soziala** eta gizarte-**inklusioa** erdiesteko baliabideak sortu nahiz erraztea, horretarako, **zeharlerrotasuna**, **lankidetzeta** eta **partehartze koordinatua** lehenetsiz.

Izan ere, gizarte eraldaketan oinarritzen den berrikuntza honi erantzuteko, kudeaketa aurreratuan ardazten den egitura eta metodologia malguagoen beharrean gara: langai honetan inplikaturik dauden entitateak eta eragileak batu, norberaren helburuak eta interesak partekatu, intersekzioak eta interes komunak aztertu, elkarrekin egin daitezkeen proiektuak identifikatu eta lanari ekin. Sailka edo esparruka lan egitetik helburu eta proiektuak lan egitera igaro, alegia.

Aroa elkarlanerako proposamen markoa da. Azken urteetako lankidetzaren ereduari jarraituz, euskararen indarberritzea helburu duten erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetzaren sustatu nahi du marko honek ere. Proiektu estrategikoak elkarrekin eta elkarlanean aurrera eramateko egiturak sendotu eta metodologiaren aldeko apustua egiten du. Hamarkada baterako jomuga nagusiak zein izango diren zehazten du. Bat, edozein dela ere herritarren egoera, euskaraz gehiago eta errazago ikasteko aukerak handitzea. Bi, eskolaz kanpoko ekosistema euskaldunagoa lortzea gazteek hezkuntzaz harago euskara gehiago eta hobeto ikasi nahiz erabil dezaten. Aisialdian eta kirolean euskarak leku nabarmen handiagoa izan dezan lortzea, hain zuzen. Hiru, ingurune digitalean euskarak leku gehiago izatea eta hizkuntza teknologien bidez euskaraz komunikatzeko aukera handiagoak lortzea. Ingurune digitalean, edukiak euskaraz sortu eta kontsumitzeko aukerak handitzea. Lau, eremu sozioekonomiko publiko zein pribatuan euskaraz lan egiteko aukerak ugartzea. Euskaraz ikasitako neska-mutil gazteek lan munduan euskara erabiltzen jarraitzeko aukeretan sakontzea. Bost, euskarazko edukiak sortu eta kontsumitzeko aukerak ugartzea. Ingurune digitalean bezainbat, beste edonolako testuingurutan, euskarazko edukiak sortu eta zabaltzeko baliabideak ugartu eta kontsumitzaileen aktibazioan eragitea izango da gako nagusia.

Horiei guztiei heltzeko programa edo plangintza orokorrak egiteaz gain, gai horri lotuta eskumena duten erakundearen arteko lankidetzaren ezinbestekoa izango da. Erakunde publikoaren arteko lankidetzaren alde batetik. Baina baita arlo bakoitzeko protagonista diren erakunde pribatu zein publikoaren artekoa ere, eta, zer esanik ez, herritar orokorren elkarrekintza.

Esparru jakin hauetan eragiteko proposamen globala da *Aroa*. Ez du plan jakin bat eskaintzen. Hiztun ahaldunduen komunitatea erdiesteko nahiari erantzuteko proposamen bat egiten du marko

estategiko baten baitan, helburuak ezarri eta lan egiteko. Tokian-tokian eta erakundez erakunde egokituko dena. Beraz, marko honen gauzapena askotarikoa izango da erakunde batetik bestera. Erakunde bakoitzak landuko du zein lan ildo zehatz jorratuko dituen markoak proposatzen dituen 7 ardatz estategikoetan.

Azken nahiari erantzuniko dituen ardatz hauek elkar elikatzen ari dira etengabe. Euskarazko harreman osoak sortu eta indartzeko, hiztun berriak sortu eta ahaldunduzko, Gobernantza eredu bat proposatu da kudeaketa koordinatua eta partekatua oinarritzen dena. Aurreikusgarria izan litekeenari edota aurreikusitako ezin den horri erantzuna emateko Berrikuntza ardatzaren eredu elikatu behar du Gobernantza, Ikerketan eta Sistematizazioan sostengatu eta harengandik jasotako ezagutzak kontuan hartu. Horrez gainera, behin-behineko zein egonkorrak izan daitezkeen prozesuen Komunikazioak eta Hedapenak leku garrantzitsua izango dute. Zertarako? Giza harremanetan euskarak leku egokia izan dezan, eta beraz, hiztunek horretarako motiboak eta gaitasuna izan ditzaten. Batak bestea elikatuz etengabe.

Aroak zazpi ardatzen gainean lan egitea proposatzen du, eta oinarritzeko mezu hau jasotzen dute marko estategiko honetan ardatzek:

Gobernantza

Aroaren nahiari erantzuna emateko egituratze eta lankidetzaren eredu propio bat proposatzen da. Gobernantza eredu jakin bat behar dugu, zeharkakotasunean eta parte-hartze koordinatua oinarritutakoa, eta era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diona. Euskara zerbitzuek edota euskalgintzak egingo duen jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea.

Jarrerak - Motibazioak

Euskararen aldekoitasun edo kontrakoitasun ideologikoen gainean arreta jartzeari erantsiko

diogun ariketa izango da hiztunek euskararekiko dituzten motibazioei begira jartzea. Hitztunaren motibo psikosozialetan arreta jarriz hitzun bakoitzak dituen motibazio iturrien gainean lan egiten da, baita horiek eraldatu edo indartzen ere.

🕒 Ezagutza - Gaitasuna

Euskararen ezagutzari erreparatzeaz gain, hiztunen komunikazio gaitasunean jarriko da arreta. Komunikazio egoera ezberdinetan euskara dagokion eran baliatzeko gaitasunaz eta horretarako hitzunak dituen behar soziolinguistiko zein komunikatiboez aritzea esan nahi du horrek.

🕒 Erabilera - Elkarreragina

Erabilera kontzeptua zabalduz, hiztunen arteko elkarreraginean gertatzen diren egoera komunikatiboei begira jarriz eragitea proposatzen da: euskara ulertu edota erabiltzeko baldintzak, elkarrekintza egoeretako hizkuntzen arteko joan-etorriak, hiztunen arteko botere harremanen zer nolakoak, hizkuntza ohiturak...

Aurretik aipatu dugun guztiak sistema hori ondo sostengatzeko kudeaketa-ardatz estrategiko hauek ere behar ditu: berrikuntza, ikerketa-sistematizazioa eta komunikazioa-hedapena.

🕒 Berrikuntza

Euskararen indarberritzean berrikuntza eginez gizarte osoarentzako onuragarri diren irtenbide berriak garatuko dira. Euskara ardatz duen berrikuntza esplorazio betean izango da eta gizarte eraldaketa sortuko du. Berrikuntza prozesuan baliatutako lankidetzak ereduak, baliabideak eta sortutako galdera berriak eragingo dute irtenbide berrien sorkuntzan.

🕒 Ikerketa - Sistematizazioa

Ikerketaren egitekoa izango da euskararen bilakaeraren gaineko jarraipena egiteaz gain, Aroaren ardatzek dituzten jakintza beharrak

elikatzea. Ezagutza berriaren gaineko ikerketa prozesuan nahiz amaieran sortu diren praktika on eta arrakastatsuak sistematizatzeko estrategia lantzea izango da beste egitekoa.

🕒 Komunikazioa - Hedapena

Komunikazioaren barne dimentsioari arreta jartzeko ekimenak lantzeko ardatza da hau; prozesuan zein amaieran. Norbanakoa, Eragile-taldea edo Komunitatea. Hiru elementu hauen arteko harremanetan eragingo da komunikazio eraginkorra lortzeko. Hedapenaren bidez, berriz, prozesuak eta emaitzak komunikatzeko estrategiak garatuko dira.

2021ean hainbat erakunderen artean etorkizuneko euskara zerbitzu(ar)en izaeraren eta funtzioen inguruko gogoeta bat egin zen⁴. Euskara teknikariek, eta oro har, euskara zerbitzuek orain arte izan duten rola eta lana aztertu ziren: euskara planen kudeaketa, itzulpen zerbitzuak eta euskarazko kultura programaren antolakuntza gairak beharretik, erakundeetako gobernantza nahiz behar berriei erantzun egokia emateko aukeretan sakondu zen.

Etorkizuneko euskara zerbitzuaz gogoetaren ildotik, errealitate gero eta konplexuagoa den honi ahalik eta erantzun egokiena emateko ezinbestekoa da berrikuntza eta eraldaketa testuingurua ekartzea euskara zerbitzuetara eta hizkuntza-politikara, oro har. “Plan estrategikoak, eta bereziki kudeaketa-planak, izan dira azken urteetan, eta gero eta gehiago, euskara teknikarien lan tresnak. Aurrerantzean ere izan beharko dute, baina azken urteetan gero eta maizago eta gero eta toki gehiagotatik iristen ari dira hizkuntza normalizazioa batez ere gizarte eraldaketa prozesu sakon bat dela baieztatzen duten ikuspegiak

4. Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Lasarte-Oriako Udala eta Agirre Lehendakaria Center (2021). *Etorkizuneko euskara zerbitzua*.

eta hori gobernatzeko, kudeaketaren ikuspegitik harago, beste tresna batzuk prestatu behar direla azpimarratzen duten iritziak”⁵.

Erakunde barneko normalizazio plana euskara zerbitzuek gainerako zerbitzuekin lankidetzan garatzeak eskatzen dituen baliabide eta gobernantza berriak irudikatzen ditu aipatu dokumentuak. Eta horrez guztiaz harago, erakunde barruan ez ezik erakundearen bidez eragitearen ikuspegia azpimarratzen da: “Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak berak, udalei euskara normalizatzen bide-erakusle eta aitzindari izateko eskumena eta erantzukizuna aitortzen die. Aitorpen hori eta euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan, ez soilik *ad intra*, hau da, toki-erakundearen bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin, baita ere *ad extra*, hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan gauzatzen diren eremu soziofuntzional guztietan”.

Ildo beretik, eta aurretikoa berretsiz, *ad intra* nahiz *ad extra* mailako langintzaren alde egin nahi du *Aroak* ere. Alde batetik, *ad intra* nahiz *ad extra* gisako politikak sendotzea: erakundeak euskalduntzea, herritarrak euskalduntzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, euskarak lan munduan, kirolean edota aisialdian leku handiagoa izatea... Bestetik, bi elementu hauen gainean ere mugitu nahi dugu euskararen ardatza: lehena, gobernantza eredu berria eraikitzea euskararen aldeko politikak gainerako politiken ardatza ere izan daitezen. Zeharkakotasunari leku berezitua ematea, alegia. Bigarrena, diskriminazio egoeretan korapilatzen diren elementuen askatzaile izatea euskararen aldeko politikak ere. Interseksionalitateari begira eragitea, hain zuzen.

5. Ikus aurreko oin-oharra.

Gainerako zeharkako politika guztien antzera, euskara ardatz duten politikak bultzatuko ditu *Aroak*. Euskara ardatz duen politika garatzeak esan nahi du, lehenik eta behin, horretarako konpromiso politikoa hartzea eta hizkuntza-politikaren erronkak egitura guztietan barneratu nahiz aplikatzea. Ezinbestean, arlo bakoitzaren erronkak osatu eta lan egiteko modua aldatzea dakar horrek guztiak; norbere eremuko politikak bideratzearekin batera, euskara indarberritzeko eragin esparruetan ere esku hartuko delako.

Sail edo zerbitzuen konpartimentazioa gainditzea eta sailen arteko lankidetzan handitzea dakar horrek guztiak. Norberaren jarduera hizkuntza desberdinkeriekin non gurutzatzen den aztertu eta neurri konpontzaileak ezartzea. Azterketa, planifikazio eta ebaluazio guztietan hizkuntzaren aldagaia ere txertatuta izatea, koordinatzeko modu berrietan esploratzea...

Politika inklusiboak egiteak, adibidez, harrera protokoloetan hizkuntzaren aldagaia txertatzea esan nahiko luke. Harrera politikek dimentsio linguistiko bat behar dute, eta hizkuntza-politikek aniztasun hori kontuan hartzeko neurriak aurreikusi behar dituzte. Integrazio linguistikoaren arrakasta harrerako uneko estrategia linguistikoaren hasierako ikuspegi on batean oinarritzen da. Hizkuntza harreraren une eta gune egokiak harreraren beraren une eta gune arruntak eurak dira, eta orduantxe kokatu beharko litzateke hizkuntza inklusioaren gaia ere. Hala, gaiari era integratzean eutsi nahi izanez gero, beraz, bi arlo horien arteko intersekzioan lan egitea dagokigu.

Hezkuntza eta hizkuntza-politikaren arteko zubiak eraikitzeaz ari garenean ere ildo beretik doan ikuspegia azpimarratu nahi genuke. Hezkuntzaren bidez euskara ezagutu eta erabiltzen ikasten da, eskolaz kanpoko ekosisteman ezagutzen eta erabiltzen jarraitzeko aukerak ematea ezinbestekoa da haur edota gazteen ongizate linguistikoan

eragiteko. Ikasleek euskara gehiago eta hobeto ezagutu nahiz erabiltzeko aukerak erraztea beharrezkoa da bizitzako egoera ezberdinetan euskaraz eroso aritzeko baliabideak eskura ditzaten. Ikasle eta familien errealitate soziolinguistikoak kontuan hartzen dituen hezkuntza inklusiboak jarraipena behar du eskolaz kanpoko jardueretan ere, eta horretarako, ezinbestekoa da sail edo arlo ezberdinen arteko lankidetzak sustatzea.

Azken hamarkadetan euskara lekua hartzen ari da lan munduan, kirolaren esparruan, osasunean, baita zaintzaren esparruan ere. Euskararen indarberritzeari ekarpena egiten ari zaie esparru hauetako eragileak eta erakunde pribatu zein publikoak. Hizkuntzen kudeaketak eta euskararen aldeotasun ekintzek gero eta leku gehiago dute, eta *Aroak* bide horiek urratzen jarraitzeko proposamena egiten du. Euskara planak ugaritzea eta hobetzea, kudeaketa aurreratuan hizkuntzen kudeaketari buruzko praktika berriak sortzea, erakundeetako langile edo partaideen euskalduntzean eragitea, hizkuntza ohitura aldaketan gaineko programa edo ikerketak sustatzen jarraitzea... izango dira etorkizuneko egiteko azpimarragarriak.


AROAREN GEROA

Aroa adostasunean oinarritzen den elkarlanerako marko teoriko-praktikoa da. Helburu du XXI. mendearen joera globalen aurrean, euskararen gutxiagotasun egoerari aurre egitea, eta beraz, indarberritze prozesuak etenik gabe jarraitzea. Euskarak bizirik aurrera egin dezan, ezinbestekoa izango da hiztun aktiboak lortu eta ugaritzea.


Euskaraz eroso aritzeko gune pribilegiatuak irabaziko dira horrela: etxea, kalea, eskola, aisialdia eta kirola, lan esparrua, osasun eta zaintza esparrua, ingurune digitala... Esparru bakoitzak izango du bere erronka euskal hiztun aktiboak lortu eta euskararen erabilera handitu dadin.

Euskararen ezagutza kopuruz gero eta handiagoa den garai honetan, euskara erabiltzen dugun hiztun kopurua igotzea da hurrengo erronka nagusia, eta horrekin batera, komunitatea handitu eta sendotzea. Aurrerantzean ere, euskaraz jarduteko erraztasun sozioekonomiko, teknologiko eta psiko-emozionalak jorratzea egokituko zaigu. Euskara gehiago eta hobeto ikasteko aukeretan sakontzea, sistema teknologiko eta digitalean euskarak presentzia handiagoa izatea, eta gutxiagotasun egoerari lotutako hiztunen ezaugarri psikosozialei helduko dieten irtenbide berriak esploratzea, hain zuzen.

Eskuartearen dugun *Aroa* marko estrategiko zabal bat da. Pentsatu eta ekinean hasteko orube bat eskaintzen du norbanako, eragile sozial eta publikoentzat. Markoa den neurrian, tokian tokiko izaera, behar eta helburuei egokitua izateko beharra du *Aroak*. Zazpi ardatz horien oinarrietatik abiatuta, eragile bakoitzak bere ekarpena egingo dio gehiago zehaztuz eta osatuz. Tokian tokiko eskumenak dituen erakundearen egitekoa izango da *Aroaren* ardatzetan egindako proposamenak bere funtzio zein ahalmenetara eramanez zehaztu eta jarraipena egitea.

Lankidetzak partekatua eta koordinazio egiturak sustatuko ditu *Aroak*, baita hamarkada baterako ebaluazio prozesu bat proposatu ere. 







Egoeraren diagnostikoa

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) berritzeko prozesuaren abiapuntu dira, beste askoren artean, ESEPen arabera egindako diagnostikoa eta hizkuntza-politikaren inguruan osatutako AMIA (aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak).

3.1. ESEP-EN ARABERAKO DIAGNOSTIKOA

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) plan gidaria indarrean izan den hamarkada (2012-2022) aztertzeke ESEP. 10 urteko ibilbideari begirada txostena osatu du HPSk. Azterketa sinkronikoa eta diakronikoa egin da, ahal izan den guztietan, eskura dauden datu eguneratuenak erabilia. ESEPen zehaztutako adierazleak hartu dira oinarri, baina beste adierazle batzuk ere landu dira, azken urteetako bilakaera eta gaur egungo egoera hobeto ulertu ahal izateko.

ESEPen araberako diagnostikoa egungo egoeraren irakurketa egiteko baliagarria izan da eta marko estrategiko berriaren norabideari buruzko gako garrantzitsuak ematen ditu.

3.2. AMIA

Euskararen egoera aztertzeke eta euskara sustatzeko marko estrategikoa eratzeko, hizkuntza-politikaren inguruko AMIA matrizea osatu du EABren ESEP Berritzeko Batzorde-atal Bereziak, hainbat aditurekin eta eragilerekin elkarlanean. Horrela, euskara indarberritzeko heldulekuak eta indartu beharrekoak zein izan daitezkeen ikusi da.

Aukerak

1. Gizartearen zati esanguratsu bat euskararen indarberitze prozesuaren alde dago.
2. Administrazio publikoek euskara sustatzeko bideratzen dituzten giza- eta diru-baliabideek goranzko joera izan dute azken hamarkadan.
3. EAEko haur eta gazte gehienek ikasi dute euskara; adin tarte horretan euskararen ezagutza handia da.
4. Euskaraz ikasi duten belaunaldiak ari dira lan mundura sartzen.
5. Digitalizazioak eta, bereziki, adimen artifizialak (hizkuntzen prozesamendua eta itzulpen teknologia barne) aukera berriak eskaintzen ditu hizkuntzen arloan.
6. Egoeraren diagnostikoan, diskurtsoan eta hartu beharreko norabidean erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen artean elkarlanean aritzeko borondatea dago, eta harreman-eredu berriak eraikitzen ari dira.
7. Administrazioen artean hizkuntza-politikak koordinatzeko eta batzeko guneak daude (HAKOBA, Hiruko Ituna).
8. Eremu soziolinguistikoaren araberako politikak diseinatzeko eta gauzatzeko baldintza egokiak daude.
9. Globalizazioaren aurrean, euskara da tokikoaren adierazgarri nagusia. Horrela, mundu globalean euskarak nortasun propioa ematen digu eta ikuspegi komunitarioa indartzen du.
10. Gizartea gero eta euskaldunagoa da, baita erabaki-ahalmena duten arduradunak eta gizartean eragina duten norbanakoak ere.
11. Euskararen normalizazioaren lege esparrua oinarri egokia da, eta horrek euskararen normalizazioaren aldeko araubidea garatzeko aukerak ematen ditu.
12. Gazte jendearen sektore batzuek ekimen berriak abiatu dituzte euskara gizartean sendotu eta zabaltzeko: EuskarAbentura, Gazte Euskaltzaleen Sarea...
13. Euskararen alorreko profesionalen ezagutzak, metatutako eskarmentuak eta metodologia frogatuak berrikuntzarako baldintzak eskaintzen dituzte.
14. Administrazioan, hainbat enpresatan eta entitatetan gero eta atal gehiago dira gai euskararen arnasmune funtzional izateko.
15. Gaur egun, eremu geografiko eta funtzional gehiagotara zabal daiteke euskararen erabilera.
16. Kultura arloa eragile garrantzitsua da, eta alor horretan ehun sendoa daukagu.
17. Kirol arloa erreferentziazko topagune bihurtzen ari da gero eta euskaldunagoa den gizartearentzat, bereziki haur eta gazteentzat. Arlo horretan, eta oro har aisialdian, aukerak daude euskararen erabilera-guneak zabaltzeko.
18. Ikus-entzunezkoak eta sare sozialak euskararen erabileran eragiteko tresna indartsuak izan daitezke.

Mehatxuak

1. Euskararen normalizazioak aurrera egin duen neurrian, euskaradunen komunitateko partaide izatearen pertzepzioak eta euskaldun izateko kontzientziak ahultzera jo du. Euskara eta erdarak dakizkiten hainbat pertsonak ez du euskara bere bizimoduan txertatzeko premiarik edo asmorik.
2. Gizartearen laurden bat ez dago euskara sustatzearen ez alde ez kontra, euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin badu ere azken urteotan.
3. Zenbaitetan zabaltzen diren mezuek (inposaketa, hizkuntzaren zailtasuna, estereotipoak: euskaraduna = baserritarra...) ez dute laguntzen euskararen prestigioa indartzen.
4. Administrazioak hartu dituen zenbait erabaki judizializatzek ekar dezake zenbait administrazio-ekintza zalantzan jartzea.
5. Euskararen arloan sortutako espektatibak ez betetzeak frustrazioa eragin dezake zenbait euskaltzalerengan.
6. Euskara erabiltzeko baldintza edota gune egokiak ez izateak nekea, ezkortasuna edota konformismoa eragin dezakete zenbait hiztunengan, bereziki gune erdaldunenetan.
7. Ikastetxeetatik kanpo euskararik ez darabilten haur eta gazteen kopurua handia da.
8. Hizkuntza normalizazioa norbanakoen “hautu askearen” lemapean kokatu da zenbaitetan, onura publikoa kontuan hartu gabe. Hautu horretan gizarteko indar-harremanek eta gizarte-joerek eta, beraz, politika publikoek duten eragina gutxietsi edo alboratu da.
9. Arnasguneetan erabilerak behera egin du eremu hauen ezaugarri demolinguistikoak aldatzen ari direlako.
10. Oparotasun digitalak inguruko hizkuntza hegemonikoen joera kulturalak, ideologiak, balioak... gehiago azaleratzen ditu; horien aurrean euskararen munduak ez du ikusgarritasunik lortzen.

Indarguneak

- 1.** Hizkuntza normalizazioan dabilzan profesionalek, erakundeek eta enpresek urteetako esperientzia, jakintza metatua eta ezagutza soziolinguistiko zabala dituzte.
- 2.** Euskararen indarberritze prozesua mundu mailan beste hizkuntzentzat eleaniztasunaren defentsarako eredugarria edo erreferentea da.
- 3.** Azken urteotan hainbat arlotan egindako lanak (administrazioa, hezkuntza, hedabideak, helduen euskalduntzea, kulturgintza, osasungintza...) eragin positiboa izan du euskararen bilakaeran.
- 4.** Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, doako-tasunean aurrerapausoak eman dira.
- 5.** Administrazio publikoan euskararen erabilera planek gero eta zabalkunde handiagoa dute.
- 6.** Euskararen arloan badaude gizarte aktibatze oso errotuta dauden ekintzak eta horiek bideratzeko esperientziak, sistematizatzen ari direnak, baita tradizio bat eta gauzak egiteko jakintza bat ere (Korrika, Euskaraldia...).
- 7.** Hainbat erakundeek ekarpena egiten dute lan mundu pribatuan euskaraz lan egitean.
- 8.** Arnasguneen garrantziaren kontzientzia areagotu da euskararen arloko eragileen artean.
- 9.** Euskara lekua hartzen ari da mundu digitalean, hizkuntza gutxitua izanik ere.
- 10.** Hizkuntza-politikari lotutako sare sendo eta zabala dago, eta horrek erraztu egiten du eragileen arteko komunikazioa eta baliabideen erabilera.
- 11.** Euskal hiztun kopuruari dagokionez, galera joera eten eta irauli ere egin da.


Ahuleziak

1. Bilakaera demografikoak euskararen indarberitze prozesuari dakarkion erronkei aurre egiteko zailtasunak daude.
2. Eremu ez-formaletan esku-hartzeko sistema eraginkorragoa falta da.
3. Hizkuntza-politikak ez du oraindik lortu agenda politikoan behar duen presentzia eta lehentasuna; oraindik orain zailtasunak daude hizkuntza-politika zeharlerrotasunez eta modu koordinatuan ezartzeko.
4. Hezkuntza sistemak zenbaitetan zailtasunak ditu legez ezarritako hizkuntza-helburuak lortzeko (adibidez, gaitasun komunikatiboa ez da beti bermatzen); horretarako tresnak eta bitartekoak indartzea falta da.
5. Euskarazko produktuen eta zerbitzuen eskaintza, zabalkundea zein kontsumoa urriak eta ezezagunak dira, eta dauden aukera guztiak ez dira baliatzen. Gainera, munduko hizkuntza eta kultura nagusiekiko lehia oztupo da.
6. Euskaraz eroso aritzeko espazioak falta dira, eremu oso euskaldunetan izan ezik.
7. Gizartearen zati bat euskararen indarberitze prozesura batzeko zailtasunak daude.
8. Euskara gaitasuna hobetzen laguntzeko estrategia bateratu eta koordinazio indartsu baten falta dago.
9. Euskararen erabilerari edota erabiltzeko aukerei dagokienez, entitate publiko eta pribatu batzuen praktikak ez dira egokiak.
10. Euskararen normalizaziora bideratutako baliabide ekonomikoak handitu badira ere, ez dira behar bestekoak. Daudenean ere, horien erabilera ez da beti egokiena izaten.
11. Hizkuntza-politika ebaluatzeko sistema hobetzea falta da.
12. Ahaleginak egin badira ere, oraindik ere euskaingintzaren esparru batzuetan diharduten langileen lan-baldintzak ez dira guztiz egokiak, ezta erakundeen egoera ekonomikoa ere. Horrek talentua galtzea dakar, besteak beste.
13. Euskararen normalizaziorako araugintza ez da behar beste garatu.
14. Zenbait irakasleren artean behar besteko prestakuntza falta dago hizkuntza kudeaketan, eta bereziki, ezagutza-praktika soziolinguistikokoan eta kontzientziarioan.
15. Euskarari buruzko diskurtso berriak antolatzeke eta gizarteratzeko estrategia falta da.
16. Gizarte aniztasuna euskararen indarberitzearen ikuspuntutik kudeatzeko zailtasunak daude.
17. Euskara indarberitzeko bidean, erakundeen babes eta ekimenak nahikoa direla pentsatzeko joera dago, eta horrek egoera zein den ikustea galaraz dezake.
18. Herritar guztiek ez dute euskara ikasteko aukera bera, arrazoi ekonomikoak, sozialak edota pertsonalak tarteko.
19. Eskolako aldia bukatuta, euskara erabiltzeko gune asko desagertzen dira; eten bat dago. Aisialdia eta lan mundua ez daude beti prestatuta gazte euskaldunei euskara erabiltzeko guneak eskaintzeko.
20. Sozializazio sistema -munduan egoteko modua- aldatu egin da, bai eta hizkuntzarekiko harremana ere. Euskarak trantsizio horretan zailtasunak ditu.
21. Zenbaitetan euskarari ez zaio eskaintzen leku, funtzio edota prestigiorik, eta horren eraginez zaila da lortzea ekitatea eta aniztasunaren bermea.





4



Arlo estrategikoa

Marko estrategiko batek oinarri sendoa behar du, gaur egungo egoera eta etorkizunean izan nahi dena jasoko dituen. Hori horrela, *Aroa* Marko Estrategiko berriaren nahia, misioa, eta ikuspegia zehaztu dira atal honetan.

4.1. NAHI ESTRATEGIKOA

Gure testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak⁶ eta ahaldunduak⁷ dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeke helburuz.

4.2. MISIOA

Kultura soziolinguistiko berria eraikitzea eta zabaltzea.

Gure gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide-orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko, eta munduko hizkuntza-aniztasunaren baitan gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldian ebaluatua eta egokitua izanik, metodologia parte-hartzaile eta berritzailea baliatzea, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

6. Aroaren testuingururako, hiztun aktiboa da modu aktiboan euskararen erabilera sustatzen duena. Hiztun aktiboak bere hizkuntzaren egoeraren kontzientzia dauka, hautu soziolinguistikoa egina dauka, ahalduntze prozesua egiten ari da, eta bere portaeretan ezaugarri hauek ditu: euskara lehenesten du edozein dela ere harremana edo egoera, euskaraz hitz egin dadin beharrezko diren baldintzak sortzen ditu (lehen hitza euskaraz, euskaraz egitera gonbidatu, ulerrizketarako jarrera izan...).

7. Aroaren testuingururako, hiztun ahaldundua da erabilera-harreman asertibo eta enpatikoak sortzen dituena. Edozein dela ere gaitasun maila edo hizkuntza ohitura, erabilera bermatua izateko baldintzak sortzeko prozesu psikosoziala egina du edo egite bidean da.


4.3. IKUSPEGIA

2034. urtean gaude eta...

- Euskararen transmisioa ziurtatuta dago.
- Euskal hiztun aktibo gehiago ditugu gizarte esparru guztietan.
- Ezagutzaren unibertsalizazioan aurrerapausoak eman dira.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbiltzen ari dira.
- Gizartean behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak ematen zaizkie, eta euskara haiena ere badela sentitzen dute.
- Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak daude; babesgune gehiago ditugu.
- Arnasguneen beheranzko joera eten egin da.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin da.)







Arlo operatiboa

Arlo estrategikoa zehaztu ondoren, marko estrategikoaren arlo operatiboa diseinatzeko unean, lau maila edo kategoria zehaztu dira, edukiak modu antolatuan aurkezteko:

1. Ardatz estrategikoak

Ardatz estrategikoek hizkuntza-politikaren azken helburuak zehazten dituzte, hemendik 2034ra arte lortu nahi den ikuspegia garatzeko. Ardatz estrategikoek strategiaren eremu nagusiak deskribatzen dituzte, eta erronken definizioa inspiratzen dute. Erronka horiek epe ertainean bete beharreko konpromiso espezifiko batzuk adierazten dituzte.

2. Erronkak

Erronkek lortu nahi diren lorpenak adierazten dituzte, eta epe ertainerako konpromiso-maila espezifiko bat adierazten dute. Erronkak “lortu” behar denari zuzenduta daude, eta ez “egin” behar denari.

3. Lan-ildoak

Lan-ildoak ardatz estrategikoak xehatzen dituzten dimentsio tematikoak dira, eta erronkak gai zehatzen arabera antolatzen laguntzen dute.

4. Ekimenak

Jarduera-proiektuak edo -programak definitzeko balio duten eragiketa edo ataza multzoak dira. Ekimenak, egoeraren eta erakundearen arabera garatuko dira, horretarako behar diren proiektuak edo programak definituz.

5.1. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, ERRONKAK, LAN-ILDOAK ETA EKIMENAK

Marko estrategiko honek 7 ardatz estrategiko eta 14 erronka jasotzen ditu, eta horiek garatzeko 31 lan-ildo eta 86 ekimen zehaztu dira.

Ardatz estrategikoak

Gobernantza

- G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.
- G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.
- G.3. Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.
- G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.

Jarrerak / motibazioak

- JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hitzunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.
- JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

Ezagutza / gaitasuna

- EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.
- EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.
- EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu.
- EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.

Erabilera / elkarreragina

- EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

Berrikuntza

- B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.


Kudeaketa-ardatz estrategikoak

Ikerketa / sistematizazioa

- IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

Komunikazioa / hedapena

- KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldea identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.



Ardatza: Gobernantza

ERRONKA

G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

Euskararen indarberritze prozesuari begira ekinean dabilen antolamendu instituzional, sozial eta ekonomikoa gero eta sendoagoa da EAEn. Bere alde argi zein ilun guztiekin.

Adostasuna eta lankidetzarako borondatea da nagusi erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen artean. Euskararen egoeraren diagnostikoan, diskurtsoan eta hartu beharreko norabidean elkarlanean aritzeko borondatea dago, eta harreman-eredu berriak eraikitzen ari gara. Gero eta herritar euskaldun gehiago ditugun neurrian, ardua soziopolitikoak dituzten pertsonen euskararen aldeko konpromisoa eta lidergoa are handiagoa da erakundeetan, nahiz eta lidergo horretan gehiago eragitea dagokigun, oraindik.

Administrazioan, hizkuntza-politikak koordinatzeko eta batzeko guneak eratuta daude. EAE mailakoa HAKOBA bitartez, eta Euskal Herri mailakoa Hiruko Itunaren bidez, eta horrek erraztu egiten du eragileen arteko komunikazioa, baita baliabideen erabilera ere. Euskararen indarberritzerako aurrekontuek goranzko bidea ezagutu dute azken hamar urte hauetan⁸. Eta gainera, hizkuntza normalizazioan

8. "EAEko erakundeetako euskara aurrekontuek azken hamar urteetan izandako bilakaera orokorrari begiratuz gero, 2012an jo zuten behea diru zenbatekoek (145,2 milioi euro), eta ordutik gora egin dute, bereziki 2018an (160,4 milioi euro); 2020an,

dabiltzan profesionalek, erakundeek eta enpresek urteetako esperientzia, jakintza metatua eta ezagutza soziolinguistiko zabala dituzte, eta hori guztia baliatzen da erronka berriei aurre egiteko.

Hizkuntza-politikaren esparrua sendotzen ari bada ere, agenda politiko orokorraren baitan lekua irabaztea ezinbesteko erronka da datorren hamarkadan. Euskarak, gainerako zeharkako politika guztiek bezala, politika publiko guztien ardatzetako bat izan beharko luke.

Euskara indarberritzeko helburuari modu integralean erantzungo dioten diskurtsoak eraiki, lidergotza sustatu eta baliabideak erraztu beharko dira horretarako. Euskara zaindu edo sustatu beharreko hizkuntza izatearen diskurtsoarekin batera, euskaldunen hizkuntza eskubideen bermeaz aritu beharko ginateke. Beraz, euskararen normalizazioaren lege esparrua garatzea dagokigu. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatzeko ezinbestekoa da esparru batzuetako araugintzan aurrerakoiak diren proposamenak egitea.

jarraipena izan du hazkundeak, eta bi urte lehenago baino ia milioi bat euro gehiagokoa izan da euskara aurrekontu likidatua (161,3 milioi)". *Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika. 2020*

Bide horretan, plangintza eta koordinazio esparruan hobekuntzak egitea dagokigu, une honetan ditugun giza- nahiz diru-baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeko gaitasuna lortuz, helburu nahiz ekimenak

partekatuz eta modu kooperatiboan gauzatu, eta ebaluazioaren bidez, helburuak birformulatuz aurrera jarraitzeko.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
<p>G.1.1. Herritarren hizkuntza- eskubideen aldeko politikak garatu.</p>	<p>G.1.1.1. Euskararen ofizialtasunaren estatus juridikoa berritu eta euskararen normalizazioan eragiten duen lege-esparrua garatu, Europako markoaren eta erakundeen babesa ere bilatuta.</p>
	<p>G.1.1.2. Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.</p>
	<p>G.1.1.3. Estatuko administrazioarekin lan egin hizkuntza-eskubideak bermatzeko.</p>
	<p>G.1.1.4. Hizkuntza-eskubideen diskurtsoa indartu.</p>
	<p>G.1.1.5. Euskararen erabileraren inguruan erakundeek onartutako araudia defenditzeko eta araudi horretan sakontzeko estrategia landu eta gauzatu.</p>
<p>G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.</p>	<p>G.1.2.1. EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.</p>
	<p>G.1.2.2. Nafarroako eta Iparraldeko erakundeekin harremanak sendotu eta elkarlana bultzatu.</p>
	<p>G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.</p>
	<p>G.1.2.4. Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak... saretu.</p>
<p>G.1.3. Euskararen indarberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.</p>	<p>G.1.3.1. Arduradun politikoak eta teknikoak euskara indarberritzeko arrazoietan eta prozesuetan trebatu.</p>
	<p>G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu.</p>
	<p>G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen indarberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.</p>
	<p>G.1.3.4. Euskara zerbitzuen funtzionamenduaren eta berregituratzearen inguruan hausnartu.</p>

ERRONKA

G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.

Euskararen sustapen politikak zeharkakoak diren neurrian, alde biko gobernantzan eragitea ezinbesteko dugu; hau da, berariazko politikak zein zeharkako politikak egitea. Euskararen indarberritzeak beren-beregi dituen erronkei erantzutea dagokigu, lehenik eta behin: herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, eta horretarako, herri erakundeetan langileak euskalduntzea eta euskararen erabilera normalizatzea, besteak beste.

Testuinguru soziolinguistiko askotarikoak ditugunez, tokian tokiko beharrei erantzungo dieten politikak zehaztea ezinbestekoa da. Gune soziolinguistikoen eta tokian tokiko ezaugarrien araberrako ekimenak ezarri eta eragiteko baliabideak erraztu beharko dira. Udalerrri euskaldunetan eta arnaseguneetan arreta jarri beharko da, bereziki, eremuen sendotzean eta zaugarritasun egoeran dauden eremuak babestean. Aldiz, eremu ez euskaldunetan euskaraz aritzeko babesguneak sortu eta eremuen euskalduntzeari emango zaio garrantzia berezia.

Azken hamarkadetako bilakaera demografiko eta soziolinguistikoa aintzat hartzen dituzten politiketan eragin beharko da. Izan ere, hiztunen mapa eta beharrak aldatzen ari dira. Zahartze prozesuari eta migrazio mugimenduen gorakadari euskaratik erantzutea izango da beste helburu bat. Hezkuntzaren bidez euskalduntutako euskaldun gazteek eskolaz kanpoko eremuetan euskaraz egiteko aukerak izate

ezinbestekoa izango da: aisialdian edo lan esparruan. Lurralde honetara bizi eta lan egitera etorritako migratzaileen egoera zein beharrak kontuan hartu beharko dira, eta euskara beraientzat elementu integratzailea eta erraztailea izan dadin lagundu. Eta azkenik, zaintzaren esparruan euskarak lekua izateko bidea egin beharko da horretarako beharrezko diren baliabideak jarritz: langileak euskalduntzea, esate baterako.

Euskararen sustapena zeharkako politika den neurrian, datozen hamarkadatan gainerako zeharkako politikek duten lekua irabazi beharko luke euskararen indarberritzeak. Euskara zeharlerro izateak dakarrena da euskararen indarberritzea gizarte osoari dagokion egitekoa dela aitortzea, eta mandatu horretatik, erakunde publiko eta sail guztiek euskararen indarberritzea aktiboki bultzatzea. Ez da nahikoa erakunde publikoek euskal-hiztunak ez diskriminatzea edo horien hizkuntza-eskubideak bermatzea. Politika eta jardura publiko guztien norabidean eragitea esan nahi du; guztiak lerratzea euskara indarberritzeko helburuarekin.

Eremu bakoitzean gertatzen diren gutxiagotasun egoerak eta hizkuntza arrakalak identifikatzea, konponbide neurriak ezarri eta ebaluatzea esan nahi du horrek; ildo horretatik, gobernantza berri bat garatzea ere bai; helburu orokorrak partekatze konpromisoa hartzea, elkarlanean oinarritzen den

kudeaketa bultzatzea, sail arteko koordinazioa eta arduren partekatzea landu eta neurtzea.

Horrez gain, euskararen zeharkakotasuna gainerako zeharkako politikekin ere lotu beharra dago. Gizarteko beste mugimendu sozialekin, begirada

interseksional batetik, lankidetzaz bideak irekitzera garamatza horrek guztiak, bai eta erdigunean dauden politiketan hizkuntza-politika txertatzera ere. Helburua da gizartearen aniztasuna kudeatzea euskara ardatz izanik.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
G.2.1. Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.	G.2.1.1. Eremu soziolinguistikoaren eta, oro har, toki-erakunde bakoitzak bizi duen errealitatearen araberako hizkuntza-politikak garatu eta sistematizatu.
	G.2.1.2. Bilakaera demografikoak dakartzan hizkuntza-erronkei aurre egiteko, tokian tokiko estrategiak landu eta ekimenak bultzatu.
G.2.2. Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.	G.2.2.1. Euskararen normalizazioak edozein gizarte esparrutan duen garrantziari buruzko markoa zedarritu, aplikaziorako metodologia garatu eta jarraipena egin.
	G.2.2.2. Euskararen normalizazioari batzen zaizkion erronka soziopolitikoetan sakondu eta modu eraikitzailean eragin (jasangarritasuna, krisi ekologikoa, genero berdintasuna, gizarte aniztasuna, enpresen erantzukizun soziala...).
G.2.3. Gizarte aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.	G.2.3.1. Hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen duen hizkuntza-bizikidetzaz tipologia lurraldekoa aztertu, eta egokienak bultzatu.
	G.2.3.2. Euskara indarberritzearen aldeko eta gizarte-berdintasunaren aldeko politikak uztartu, elkarrengandik elikatu.
	G.2.3.3. Gizarteko beste mugimendu sozialekin –bereziki ekitatea eta elkarbizitza defendatzen dutenekin–, begirada interseksional batetik, lankidetzaz-bideak ireki, marko inklusiboagoa erdiesteko.
	G.2.3.4. Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasleak, ikasleak, familia...) eta udalak indarberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz.

ERRONKA

G.3. Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.

Mundu globalizatu honetan bizirik dauden hizkuntzen %43 arriskuan edo galzorian daudela diote hizkuntzalariek. Ingurune digitalean hizkuntzek duten presentzia edo presentzia faltari begiratzuz gero, arriskuan dauden hizkuntzen kopurua are handiagoa da. Nazioarteko hizkuntza frankoa (ingelesa) lan eremuan ez ezik, aisialdi eremuan edo ingurune digitalean ere gero eta agerikoagoa da, eta hizkuntza ordezkapenak ari dira gertatzen zenbait herrialdetan. Beraz, hiztun asko dituzten hizkuntza handiak zein hiztun gutxidun txikiak, inor ez da arrisku horretatik kanpo geldituko. Euskara indarberritze prozesu betean badago ere, ez dago arrisku horretatik kanpo, eta biziraupenaren aldeko ekimen berezituak egiten jarraitu behar dugu.

Aroa marko estrategikoak mundu mailako hizkuntza aniztasunaren errealitateari egin nahi dio ekarpena, munduko hainbat hizkuntza bezalaxe, gutxiagotasun egoeran dagoen hizkuntza modura. Hizkuntzen arteko harremana da testuinguru sozial berriaren ezaugarri bereizgarrietako bat, mundu mailan eta tokian-tokian, eta euskararen indarberritze prozesua eredugarria izan daiteke hizkuntzen arteko bizikidetzaz ulertzeko eta eleaniztasunaren defentsa egiteko.

Aurrera begira, aniztasuna kudeatzea da euskararen oinarritzko erronketako bat. Munduko aniztasunera zabalik eta aniztasunaren errespetuan eta ekitatean oinarritzen den elkarbizitza da gure jomuga. Testuinguru horretan, globalizazioaren aurrean euskarak nortasun propioa ematen digu eta ikuspegi komunitarioa indartzen du.

Hizkuntza ezberdinen joan-etorrian eraikitzen ditugun harremanak (aurrez aurrekoak edo online) gero eta ugariagoak diren garai hauetan, erronka berriei erantzun beharrean gaude. Euskarak hiztunentzat, hizkuntza komunitatearentzat balio identitario zein instrumentala izateaz harago, balio unibertsala du gainerako hizkuntza guztiekiko. Euskaldun izatea, identitate marka da batzuentzat. Lan egin eta lagunartean erabiltzeko tresna izan daiteke beste batzuentzat. Ikuspegi sinboliko eta kosmogonia jakin bat ematen du: izan, ezagutu eta bizitzeko aukera bat. Munduarekin harremanetan jartzeko toki berezitua ere bada. Gutxiagotasun egoera askotarikoekin bat egiteko elementua ere bai. Helduleku hainbat eta hainbat ematen dizkigu euskarak ondare unibertsala den munduaren aniztasunean kokatzeko.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
G.3.1. Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu.	G.3.1.1. Hizkuntza lankidetzaren eremuan egindako lana sustatu.
	G.3.1.2. Euskararen indarberritze-prozesuak mundu mailan duen erreferentzialtasuna baliatu hizkuntza gutxituen defentsan.
	G.3.1.3. Hizkuntza gutxituen komunitateen arteko lan-sareak hedatu eta sendotu.
	G.3.1.4. Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lerrokatuta lan egin.

ERRONKA

G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.

Gizarte aldaketa handi batean murgilduta gaude. Gure komunikazio harremanak ingurune digitalak zeharkatzen ditu XX. mendearen amaieraz geroztik, eta etorkizunean harreman teknologikoak ugaritzeko joera sendotuko dela diote adituek.

Orain arteko gizartea erreproduzitzeko balio-sistemei eta komunikazio-interakzio sistemei begiratzea baino ez dago: familia, hezkuntza, betiko espazio fisikoak... aldatzen ari da hauen guztien balioa, eta ingurune digitalari lotutako sistema berriek gero eta eragin handiagoa dute gure pentsamendu nahiz komunikazio harremanetan. Lan esparruan, aisialdian edota zaintzaren eremuan lagun izango dira teknologia berriak: irudi eta hitz digital bidez harremanak izan ahalko ditugu, edukiak sortu nahiz kontsumituko ditugu.

Beraz, euskara biziko bada, ingurune digitalean ere presentzia eta erabilera izanda biziko da.

Gaur egun, euskarak badu leku bat ingurune digitalean, eta adimen artifiziala baliatuz hainbat beharri erantzuteko produktuak sortzen ari gara: itzulpen automatikoak, ahots sintesian oinarritutako aplikazioak... 2020an Espainian eta Frantzian gehien erabiltzen ziren APP, web-zerbitzu eta plataforma, eta oinarrizko tresna eta sistema eragileen %49,1 euskaraz ere bazeuden. Wikipediako funtsezko 10.000 artikuluetatik %86 euskaraz zeuden 2020an.

Euskarazko Wikipediak 135 milioi bisita izan zituen 2020an, eta Hezkuntza Programak 2,8 milioi⁹.

Datuak datu, ingurune digitala erabat aldatkorra den esparrua da; erabilera arau eta ohiturak oso bizkor aldatzen dira, eta oparotasun digitala, berriz, inguruko hizkuntza hegemonikoena da. GAITUn jaso den moduan, “arrisku handia dago hizkuntza hegemonikoek guztiz beregana dezaten arreta eta sostengua, eta hizkuntza minorizatuak, euskara barne, zokoratuta gera daitezen”¹⁰. Gizartearen unean uneko beharrei euskaraz erantzuteko ahalmena ere urria denez, gainerako hizkuntzetara jotzen dugu. Euskarak, oraindik orain, ez du ikusgarritasun nahikorik ingurune digitalean.

Bestetik, GAITUn aipatu bezala, “indartsu datoz Adimen Artifiziala eta hizkuntza-teknologiak eta abagune honek politika ondo diseinatuak eta eraginkorrak behar ditu. Estatu ahaltsuek eta, batez ere, erraldoi teknologikoek —Google, Microsoft, Facebook, Amazon eta IBM bezalakoek— lekua hartu dute teknologia horiei dagokienez, uhin horrek ihes egin ez diezaien. Jokaleku globalean gertatzen ari da eraldaketa teknologikoa, baina ez ordea modu homogineoan”. Horrek guztiak gobernantza

9. EAS: *Euskararen Adierazle Sistema*.

10. GAITU. *Hizkuntza-teknologiaren ekintza-plana 2021-2024*.

mailako interlokuzioa eskatzen du, besteak beste, bai kanpoko eragileekin (Google bezalakoak), bai barrukoekin (SPRI, GAIA, Innobasque eta antzekoak); estrategia digitala lantzen ari direnekin, alegia.

Estrategia digital globalek euskararen indarberritzea garatzeko modua goitik behera aldatuko dute, gizarteko beste esparru guztietara aldaketak ekarriko baititu. Hortaz, euskarak ingurune digitalean lekua eta erabilera ohiturak ugaritu daitezzen sortu beharko

dira estrategia egokituak zaintza-, berrikuntza-, ikerketa/sistematizazio- eta komunikazio/hedapen-estrategia egokietan oinarrituta.

Alde batetik, eremu honi lotutako sektorea sendotzea izango da egiteko bat: sortzaile nahiz erabiltzaileak ugaritzea nahiz sendotzea. Eta bestetik, teknologia berrietan euskarak leku funtzionalak, babesguneak, izateko erraztasunak eman beharko dira.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
G.4.1. Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu.	G.4.1.1. Ingurune digitalean euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalak ziurtatu, software eta eduki libreei arreta berezia eskainiz.
	G.4.1.2. Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza handitu, bereziki fikziozkoa; horrekin batera, plataformetarako estrategiak landu eta gauzatu.
	G.4.1.3. Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen kontsumoa areagotzeko zabalkunde estrategia egokiak diseinatu eta gauzatu.
G.4.2. Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeekiko harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.	G.4.2.1. Euskararen estrategia digitala garatzea ahalbidetuko duen ordezkaritza bideratu.
G.4.3. Zaintza teknologikoa ziurtatu.	
G.4.4. Adimen Artifizialean euskara hizkuntza nagusien pare egoteko lanketa egin.	

Ardatza: Jarrerak / Motibazioak

ERRONKA

JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.

VII. *Inkesta Soziolinguistikoaren* arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen zati esanguratsu bat euskara indarberritzearen alde dago; hain zuzen ere, 16 urtetik gorako herritarren %65 euskararen erabilera sustatzearen alde dago¹¹, eta aldeko jarrera horrek aukera ematen digu hiztunen ahalduntzean eta hizkuntza ohitura nahiz portaeretan eragiteko.

Euskara sustatzearen aldeko jarrerak azken urteotan gora eginagatik ere, ingurune globalaren eragina eta euskararekiko zabalitzen diren mezuek (inposaketa, hizkuntzaren zailtasuna, euskaldunen estereotipoak...) ez dute beti laguntzen euskararen prestigioa indartzen. Euskara erabiltzea hautatu beharrekoa izango da etorkizunean ere; edozein izanda ere egoera, hautu kontzientea izango da egoera askotan. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua¹² izatea ezinbestekoa izango da, eta hori erdiesteko bidea egin beharko da.

Hizkuntza baten aldeko motibazioak hiru motatakoak izan ohi dira nagusiki: pragmatikoak, sinbolikoak eta afektiboak. Askotan elkarri lotuta badaude ere, badituzte ezaugarri bereizgarriak. Pragmatikoak arlo sozioekonomikoari lotuta agertu ohi dira: lan-

eremua eta integrazio soziala...; alegia, euskarak abantaila sozioekonomikoak ekartzeari lotutako motibazioa da. Sinbolikoak sustrai kulturalak eta identitarioak ditu. Afektiboak norberaren bizipenari lotutakoak dira: familiaren eta gizarte hurbilaren bidezko sozializazioaren eskutik sortzen den atxikimendua. Bada, gaur egun, laugarren arrazoibidea ere. Hizkuntza ekologiak ekarri diguna: munduko ondare kultural eta linguistikoaren zaintza eta biziraupenaren ardura partekatzea. Gure eremuan, euskara gainerako hizkuntza nahiz kultura elementuekiko harremanetan zaintzea da, balio propio nahiz unibertsal modura. Lau motibazio mota horietan eragin behar da euskararen aldeko jarrerak areagotuko badira.

Egunerokoan edozein unetan euskara erabiliko dute batzuek, solaskide jakin batzuekin bakarrik beste batzuek, lan hizkuntza izango da zenbaitentzat... Euskara erabiltzeko arrazoi eta modu askotarikoak ditugu, eta horietan guztietan beharrezko izango dira hiztun ahaldunduak.

Ildo horretatik, badira dagoeneko gizartea aktibatze oso errotuta dauden ekimenak, sistematizatzen ari direnak, edota gauzak egiteko jakintza metatua ere: Korrika edo Euskaraldia, esate baterako. Gizartea aktibatze ekimenak sustatu eta hedatzen jarraitu beharra dago.

11. VII. *Inkesta Soziolinguistikoa*.

12. *Aroaren testuingururako, komunitate ahaldundua da hiztun ahaldunduek osatzen duten harreman-sare sinboliko edo soziala.*

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
JM.1.1. Euskaldun ¹³ izatearen kontzientzia eragin.	JM.1.1.1. Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu.
	JM.1.1.2. Euskal identitate askotarikoek euskararekin duten lotura aztertu eta estrategiak landu.
	JM.1.1.3. Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zaindaz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak.
	JM.1.1.4. Ingurune digitalak, ikus-entzunezkoek, kultura arloak... eskaintzen dituzten aukerak eta duten indarra baliatu motibazioan eragiteko.
JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta zabaldu.	JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu eremu guztietan.
	JM.1.2.2. Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboa bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean.
JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.	JM.1.3.1. Euskara indarberritzeko arrazoiak landu eta gizarteratu.
	JM.1.3.2. Ahaldundu-prozesuak sortu eta dinamizatu.
	JM.1.3.3. Motibazioa landu, besteak beste kulturaren bitartez, kultura hartzailea zein sortzailea izatea bultzatu.
	JM.1.3.4. Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu eta garatu.
	JM.1.3.5. Euskal kulturaren dimentsioa kontuan hartzen dituzten edukiak eta baliabideen sorkuntza eta kontsumoa bultzatu.

13. Aroaren testuingururako, euskalduna (elebiduna) da euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai dena (Inkesta Soziolinguistikoa).

ERRONKA

JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

Euskarak gaur egun arte bizirik iraun badu, garaian garaiko erronkei erantzun dien komunitate ahaldundua izan duelako da, bereziki. Euskara transmititu, irakatsi eta erabiltzeko aukerak sortu ditu komunitateak, eta aldian-aldian sortu diren beharriaz erantzuteko baliabideak ezarri: euskara estandarra landu eta indartu, euskararen erabilera arautu, euskara ikasi eta irakasteko egitura nahiz baliabideak ezarri, euskarazko edukiak sortu eta erabiltzeko bidea egin... Zerrenda luze horren muinean dagoen nahia da garai historiko bakoitzeko prestigio soziokulturala irabaztea; hizkuntzen arteko menderakuntza harremanetan, euskarak leku soziala lortzea modu ekitatiboan.

XXI. mendearen hirugarren hamarkadarako erronka ere horixe bera da. Mundu globalizatu eta anitz honetan leku berezitua izatea eta inguruko hizkuntza hegemonikoen aurrean berdintasun egoeran bizitzeko ahalmena izatea, baita leku horrekiko iruditeria soziala positiboa izatea ere. Erabaki guneetan, edozein mailatako kirolean, finantza eta ekonomia arloan, kultura jardueretan,

eremu akademikoan, osasun eta zaintza esparruan, harreman digitaletan, lagunartean eta etxegiroan... Euskarak eremu hauetan lekua badu ere, gutxiagotasun egoeran jarraitzen du oraindik eta leku duinagoa behar luke izan.

Gizartea euskararen indarberritze prozesura batzeko ezinbestekoa da aniztasuna kudeatzea, eta beraz, aniztasuna kontuan hartzen duen kultura soziolinguistikoa berria garatzea ere bai. Euskal hiztunaren iruditeria mugatua malgutzea da egiteko garrantzitsu bat. Euskara gaitasun askotarikoak ditugu, hizkuntza ohitura eta bizimolde ezberdinak. Horiek guztiak kontuan hartzen dituen kultura soziolinguistikoa berritzea ezinbestekoa da.

Kulturartekotasun ikuspegian oinarrituz, bertakoen eta etorri berrien pertzepzio guztiak aztertu eta kontuan hartuz eragitea, euskal hiztun mota eta identitate aniztunak aitortu eta balioan jartzea, eta euskararen aldeko jarrera duen gizartea eraikitzea izango dira zeregin nagusiak. Hizkuntza-politika inklusiboak landu eta sendotzea, hain zuzen.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
JM.2.1. Euskararen komunitatea sendotu.	JM.2.1.1. Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu.
JM.2.2. Euskararen erakargarritasuna landu.	JM.2.2.1. Gizartearentzat erreferenteak diren pertsonekin zein erakundeekin euskara sustatzeko lanketa egin.
	JM.2.2.2. Hezkuntza-sistema eleaniztunean euskara elementu kohesionatzaile izan dadin lortu.
	JM.2.2.3. Euskara lotu ekitatearekin, justizia sozialarekin, ekologiarekin, jasangarritasunarekin eta erresilientziarekin.
	JM.2.2.4. Euskara eguneroko bizitza garaikidearekin eta gizarte aurreratuarekin lotu.
	JM.2.2.5. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu, erakutsi eta zabaldu.
	JM.2.2.6. Euskararen indarberitze-prozesuak mundu mailan duen erreferentzialtasuna baliatu eta gizarteratu.
JM.2.3. Euskal hitzun-mota eta komunikazio-egoera askotarikoak balioetsi.	JM.2.3.1. Euskal hitzun moten arteko elkarreragina bultzatu.
	JM.2.3.2. Euskara erabiltzea errazten duten hizkuntza-praktika berritzaileak identifikatu eta gizarteratu.
JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.	JM.2.4.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu.
	JM.2.4.2. Kasu edo praktika eredugarriak identifikatu eta gizarteratu.
	JM.2.4.3. Euskara ezagutu eta erabiltzearen aldeko diskurtso askotarikoak garatu.
	JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.
	JM.2.4.5. Atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu.
	JM.2.4.6. Hizkuntza-aniztasunari buruzko diskurtsoa aberastasun gisa eraikitzen lagundu.

Ardatza: Ezagutza / Gaitasuna

ERRONKA

EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

Edozein hizkuntza gutxituren indarberritze gako nagusiak izan dira familia bidezko transmisioa eta sozializazioa. Etxean eta etxetik kanpoko harreman bereziki informaletan jaso eta erabilitako hizkuntza gutxituek bizirik irauteko aukera gehiago izan dituzte, eta oraindik ere, gako hauek garrantzia berezia dute euskararen iraupenean ere. Etxeko hizkuntza, ahal den guztietan, euskara izan dadin bermatzea eta etxetik kanpoko harreman hurbilak euskaraz izan daitezen lortzea erronka dira euskararentzat eta euskal kulturarentzat.

Hartaz, zertan eragin beharko dugu etorkizunean transmisioari dagokionez? Etxeko zaintzaren ardura duten helduen aldeko jarreretan, baita ezagutzan ere, euskaraz hitz egiteko baldintzak sortzeko baliabideetan, eta euskarazko edukien (digital nahiz ez digital) ugaritzean eta ikusgarritasunean.

Horrez gain, euskararen indarberritze prozesuak erakutsi digu belaunaldi berriek euskara jaso eta erabiltzeko hezkuntzak egin duen ekarpena ezinbestekoa izan dela. Une honetan, 30 urtez azpiko hamar gaztetik seik etxetik kanpo ikasi du euskara, ia guztiek hezkuntzari esker. Euskara eremu akademikoan ikasi izanak aukera handiak zabaltzen dituen arren, bere mugak ere baditu. Gehienetan, ahozko erabilera urria izan ohi da eta egoera

akademikoei oso lotua denez, eremu hurbileko jardunerako baliabideak falta izan ohi dituzte gazteek. Euskararen gaitasunean eragiteko beharra dago, oro har, baita ingurune hurbileko hizkuntza ohituretan ere.

Aurrerapenak aurrerapen, ikasleek euskara eta euskaraz ikasteaz harago, behar berriak sortu dira hezkuntzan eta helduen euskalduntzean ere: kulturarteko hezkuntza, hizkuntza aniztasunaren kudeaketa, (ahozko) hizkuntzaren gaitasun nahiz erabilera, ezagutza-praktika soziolinguistikoak... Hezitzaile eta irakasleek prestakuntza eta baliabide beharra dute premia horiei erantzuteko. Euskal kultura kulturarteko hezkuntzarekin uztartzeko edukiak sortzea eta praktika arrakastatsuak lortzea ezinbestekoa da. Ikastetxeko hizkuntza aniztasunaren kudeaketarako baldintzak probatzen eta praktika egokiak topatzen ari gara une honetan. Gelako testuinguruetan ahozko hizkuntzak presentzia handiagoa izateko azterketak abiatu dira. Irakasle eta hezitzaileek ezagutza soziolinguistikoa beharrezko dute murgiltze egoeratan, euskarak lekua izan dezan.

Ezinbestekoa izango da ikasle eta hezitzaile nahiz irakasleen ongizate linguistiko zein kulturala bermatuko duten oinarriak ezarri eta baliabideak erraztea.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
EG.1.1. Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri.	EG.1.1.1. Belaunaldien arteko harremanak ehundu.
	EG.1.1.2. Euskararen aldeko arau sozialetan sakondu (lehen hitza beti euskaraz, adibidez).
EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.	EG.1.2.1. Familia-transmisioari lotutako proiektuen iraunkortasuna bermatu, erakundeetako hizkuntza-politika sistematizatuz.
	EG.1.2.2. Familia-transmisioari lotutako proiektuak egokitu ibilbide biologikoa kontuan hartuta.
EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoa.	EG.1.3.1. Behar duten hezitzaile eta irakasleek hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza indartu eta zabaldu.
	EG.1.3.2. Hezitzaile eta irakasleei euskal kulturaren eta praktika soziolinguistikoaren inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini.

ERRONKA

EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

Euskara erabiltzeko oinarrizko faktoreak, aldeko motibazioekin batera, bi dira: euskaraz ondo moldatzea (gaitasun erlatiboa¹⁴) eta euskaraz eroso jarduteko aukerak izatea (harreman sarea). Bi elementu horiek elkarreraginean egon ohi dira eta hizkuntza ohiturak ere finkatzen dituzte. Euskara jakiteak erabilera dakar, horretarako harreman sarea dagoenean; erabilerak euskara gaitasuna hobetzen laguntzen du, norbere autoestimua indartzen, eta beraz, hiztuna ahaldundu nahiz hizketarako ohitura berriak ere sortzen dira.

Hartan, hezkuntza sistemak eta helduen euskalduntzeak egindako ibilbidea lagungarria izan da euskaldun kopurua handitzeko. Euskara ulertu edota hitz egiteko baldintzak gero eta gehiago dira gaur egun, baina euskararen gaitasun erlatiboa ez da neurri berean hazi.

Euskaraz edozein testuingurutan eroso moldatzen diren hiztun ahaldunduak izatea da datorren hamarkadarako erronka, eta horretarako, ezinbestekoa izango da euskara irakatsi eta ikasteko aukerak zabaltzea eta metodologia berriak proban jartzea.

14. Aroaren testuingururako, euskaldunen gaitasun erlatiboa da euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz eta frantsesez batik batik) hitz egiteko erraztasuna.

Gaitasun komunikatiboa lortzeko metodologiak, ikasleen beharretara egokitutako ikas-irakaste prozesuak, gaitasun soziolinguistikoan murgiltzeko tresnak, euskara eroso erabiltzeko formatu berezituak, online ikasteko aukerak, adimen artifizialaren bidez testuak prozesatu, zuzendu edo eraikitzeke baliabideak... Horiek eta gehiago, hezkuntzaren eta helduen euskalduntzearen erronka izango dira, eta askotan elkarren arteko zubiak eraikitzea egokituko zaie. Hezkuntzaren beharrei erantzutea helduen euskalduntze sistematik, batik bat: ikasleentzako hizkuntza errefortzuak, C1 edo C2 lortzeko gazteentzako ikastaroak, guraso eskolak...

HABE euskara ikasteko baldintzak errazten ari da doakotasunean eman diren aurrerapausoetan: dirulaguntza bidez egiaztatutako B2 mailara arteko doakotasuna ezartzeko eta C1 mailara arteko doakotasuna eskaintzeko 16-30 urte bitarteko gazteentzat. Hala ere, herritarrek ez dute euskara ikasteko aukera bera euren baldintza ekonomiko, sozial edota pertsonalak tarteko, eta bada erronka bat euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztea. Ildo horretatik, baldintza sozial ezberdinetan dauden herritarren ikas aukerak aztertu eta proposamen berriak egitea egokituko da, eta gainera, bereziki begiratu beharko zaie hizkuntza-teknologiaren bidetik etor daitezkeen erraztasunei, eta horretarako corpus baliabideak eskura jartzeari.

Horrez gain, ezagutza orokortzeko eta espezializatzekeo baliabideak handitu eta tresnak sortu beharko dira, helduen euskalduntzean esperimentazioaren

eta berrikuntzaren ildoak antolatuz: uler-saioak, mintza-praktika saioak, ikasleen hizkuntza ohitura berriak eraikitzekeo aukera berriak...

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzekeo baliabideak handitu eta tresnak sortu.	EG.2.1.1. Euskara testuinguru askotarikoetan erabiltzekeo ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak bultzatu, eta horretarako euskara estandarra zein tokiko hizkerak elikatu, aberastu eta sendotu, eta adierazkortasuna indartu, hizkuntzaren kalitatea bermatuz.
	EG.2.1.2. Arlo espezializatuetako hizkuntza beharrei erantzun, bereziki corpusari dagokionez.
	EG.2.1.3. Hizkuntza- eta kultura-ondarea jaso, eta gaur egungo beharrei erantzutekeo baliabideak sortu nahiz zabaldu.
	EG.2.1.4. Estrategia berriak landu ahozotasunean aurrerapenak eragitekeo.
	EG.2.1.5. Hizkuntza-teknologiak garatu euskara ikasi eta irakastekeo baliabideak erraztu daitezke.
EG.2.2. Euskara ikastekeo aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharrene araberrako eskaintzak sortu.
	EG.2.2.2. Euskara ikastea doakoa eta unibertsal izatekeo bidea egin.

ERRONKA

EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.

Hazkunde demografikoa gertatzen ari bada, atzerritik etorritako biztanleei esker gertatzen ari da, eta beraz, euskararen erronketako bat bada euskara hizkuntza gutxitua izanagatik ere, gizarte kohesiorako elementu bihurtzea; euskaratik urrun dauden emakume eta gizon horien beharrezko aintzat hartuz, euskara ulertu edota hitz egiteko gaitasunean laguntzea.

D ereduaren bitartez eta murgiltze eruedetako prozesuek lagunduta, atzerritar jatorriko haur nahiz gaztetxoak euskarara ari dira pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen. Ikastetxean euskara ikasteaz gain, curriculuma garatzen dute euskaraz, eta beraz, ikasle horientzako ezagutza nahiz harreman aukera berriak sortzen dira euskararekin. Ikasle etorri berrien adina eta herriaren ezaugarri soziolinguistikoak baldintzagarriak dira euskararen ikaste prozesuaren arrakastan. Euskarazko eskolatzea zenbat eta lehenago izan, zenbat eta herri euskaldunagoan gertatu, orduan eta aukera hobeak izango dituzte euskaraz ikasi eta bizitzeko beharrezko diren gaitasun guztiak lortzeko.

Hala, testuinguru emankorrenetatik oztopogarrinetarainoko *continuumean* beharrezko diren baliabideak ezarri beharko dira ikasle horien ongizate soziolinguistikoa bermatzeko.

Helduen adin tartean arreta jarrita, gizarte eleaniztun honetan oinarritzko behar komunikatiboari erantzuteko lehen hautu linguistikoa gaztelania izan ohi da. Gaztelaniak prestigio sozial handiagoa du, hizkuntza hegemonikoa da euskararen aurrean; euskararen eta

euskal komunitatearen inguruko ezaguerarik ez zaie, oro har, atzerritarrei ematen; lanerako gaztelania lehenesten da, gaztelania jakiteak munduko hainbat tokitan lan egiteko aukera eskaintzen diete... Atzerritar jatorriko biztanleek, ingurune askotan, euskara urrun ikusten dute, eta gehienek, euskarara baldintza egokietan hurbiltzeko baliabide sozioekonomiko eta kultural nahikorik ez dute.

Udaletako harrera- nahiz hizkuntza-politiketan eta hezkuntza sisteman etorri berriak euskarara sarbidea izateko baldintzak sortzea ezinbestekoa da. Haien bidez eta modu koordinatuan eman daiteke euskararen komunitatearen berri, baita euskaraz ikasi edota erabiltzeak dakartzan onuren berri ere: gizarte inklusioa erraztea, lan aukerak hobetzea, haurren eskolatze eredia...

Emakume eta gizon migratzaileek dituzten beharren azterketa egitea ezinbestekoa da horretarako. Migratzaile talde antolatuekiko lankidetzeta eta harreman foroak sortzeak lagundu egingo du komunitateen arteko kohesioa indartzen, eta zehazki, euskararekiko nahiz euskal kulturarekiko atxikimendu nahiz ezagutza handitzen.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.	EG.3.1.1. Ikaskuntza prozesuak errazteko baliabideak sortu eta eskaini.
	EG.3.1.2. Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu dezaten aukerak erraztu.

ERRONKA

EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.

VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (2021), EAEn 1991n baino 261.000 euskaldun gehiago daude. Hezkuntza sistemak euskalduntutako gazteak dira gehienak, eta ingurune erdaldunetan gertatu da bilakaerarik handiena, beraz, etxetik euskaldun ez diren neska-mutil gazte askoren bigarren hizkuntza da, gaur egun, euskara.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
EG.4.1. Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.	EG.4.1.1. Irakasle eta hezitzaileen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitu.
	EG.4.1.2. Gazteen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitzeko tresnak garatu.
EG.4.2. Euskara gaitasuna hobetzen lagundu, adierazkortasunari bereziki erreparatu.	EG.4.2.1. Ikasleen ahozko komunikagaitasuna lantzeko metodologia hobetu ikas-irakas prozesuetan.
	EG.4.2.2. Esparru naturalagoetan / informalagoetan euskara erabiltzeko baliabideak garatu.
EG.4.3. Helduak euskalduntzeko eskaintza egokitu dauden egoera ugarietara.	EG.4.3.1. Ikasleen helburuak kontuan hartuta, euskara ikasteko orduan komunikagarritasunean oinarria duten metodologia eta baldintza egokiak garatu.

Euskaldunen ezaugarrietan, beraz, aldaketa ugari gertatu dira. Euskaraz aritzeko harreman sareak ugaritu dira euskaldun kopurua ugaritzearekin batera. Haatik, euskaraz hitz egiteko erraztasuna duten herritarren kopurua ez da maila berean hazi. Euskaldunak irabazi ditugun neurrian, gora egin du erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duen euskaldunen kopuruak, eta honetan arreta jartzea ezinbestekoa da euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreen artean baitaude harreman sarea eta gaitasun erlatiboa.

Bereziki neska-mutil gazteen artean, euskaldun elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu beharra dago eta horretarako baliabideetan sakondu. Euskara gaitasuna hobetzen laguntzeko estrategia bateratu eta koordinazio indartsu baten falta nabaria da une honetan. “Hezkuntzak bakarrik ezin du” ideari erantzunez, hezkuntza eta hizkuntza-politikaren arteko lankidetzaren sendotzeko zubiak eraiki beharko dira. Bi eremuetatik, euskararen erraztasuna eta kalitatea lortzeko beharrezko baliabideak ezarri beharko dira hezkuntzan eta gazteek dituzten harreman sare informal nahiz formaletan (aisialdian eta kirol antolatuan, bereziki).

Ardatza: Erabilera / Elkarreragina

ERRONKA

EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

Euskal hiztunen ahalduntze prozesuen garapenerako, estres linguistikorik gabeko euskarazko egoerak erdiesteko, hiztunen motibazioa handitu eta gaitasunean eragiteko... gune pribilegiatuak dira ekosistema babestuak, hau da, euskararen babesguneak¹⁵.

Babesguneak dira hiztun bakoitzaren motibazio iturriak, gaitasun linguistiko askotarikoak eta euskararekiko aldeotasun maila ezberdinak onartu eta bere egiten dituzten guneak. Harremana euskaraz izateko borondateak bultzatuta, partaideen arteko aldartea eta jarduna zainduz eraikitzen dira elkarrizketak. Gutxiagotasun egoeran dagoen hizkuntzari leku berezitua ematen zaio eta partaide guztien ahalegina guztien onura bihurtzen da: euskara praktikatu eta ulertu delako, onura ekonomikoak lortu direlako, norberaren ongizatean eragin duelako, komunitateko kide izaten lagundu delako, gozamen iturria izan delako...

Babesgune kontzeptuari begira jartzea kultura soziolinguistiko berri bati begira jartzeko gonbita da, eta gaurdaino iritsi diren aurreiritzi soziolinguistikoak apurtzeko ariketa proposamena ere bada.

15. Aroaren testuingururako, euskararen babesgunea edo eremu soziofuntzionala da euskaraz aritzeko espazio edota testuinguru segurua, hiztunen adostasunez euskaraz eroso jarduteko baldintzak dituen.

Hiztun askotarikoen baldintzak kontuan hartu eta integratzen dituzten neurrian, babesguneak gizarte kohesiorako tresna bihurtzen dira horretarako baldintza eta giro egokiak sortuta. Hiztunen jarrerak, praktikak, balio edo sinesmenak aintzat hartzen dituzten harremanak zainduz akordio inklusiboetara iristea du helburu.

Euskara eroso erabiltzeko baldintzetan sakontzea, beraz, oinarritzkoa izango da datozen hamarkadatan. Alde batetik, arnasmuneetan¹⁶ jarriko da arreta, eta bestetik, babesgune diren edota izan daitezkeen edozein eremutan: eskualde oso bat, herria, auzoa, udaletxea, familia, ikastetxea, kirol antolatua, aisialdi antolatua, merkataritza, ostalaritza, enpresa...

Arnasmuneen erronka nagusia izango da euskararen ondorengotaritze sozial eta komunitarioa bermatzea. Bertako hiztunen ahalduntze prozesuetan sakondu beharko da arnasmuneetan, bertan euskararen erabilera berma dadin, eta bertako biztanle euskaldunak arnasmuneetatik kanpoko egoeretan euskaldun eragile aktibo izan daitezen.

16. Aroaren testuingururako, arnasmunea da eguneroko komunikazio-jardun arruntetan bertakoen artean euskara nagusitzen den gune sozio-geografikoa. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 4. gunearen ezaugarriak dituen espazioa.

Bestalde, euskaldun kopuru handiak dituzten edo bertara jotzen duten eskualde-buruak, hiriburuak eta gunehiritartuak bereziki garrantzitsuak izango dira babesguneak sortu eta sendotu daitezzen. Ere horietan daude, oraindik orain, baldintza soziolinguistiko onenak euskararen erabilera handitu dadin eta hizkuntza ohiturak alda daitezzen.

Babesgune izateko aukerak dituzten eremuetako ezaugarrietan sakondu eta praktikak egitea ere izango da beste egiteko bat: aurreiritziak apurtzea, konfiantza giroa sortzea, partaideen ahalduzko prozesuetan eragitea, euskara ikasi eta erabiltzeko aukerak garatzea...

Gazteei begira, eskolaren esparrua eta eskolaz kanpoko kirol nahiz aisialdi antolatua jomuga garrantzitsuak izango dira euren euskara gaitasunean eta erabilera ohituretan beharrezko diren baldintzak ezartzeko. Kirol arloa erreferentziazko topagune bihurtzen ari da gero eta euskaldunagoa den gizartearentzat, bereziki haur eta gazteentzat. Arlo horretan, eta oro har aisialdian, aukerak daude euskararen erabilera-guneak zabaltzeko.

Eskolako aldia bukatuta, euskara erabiltzeko gunerik gabe gelditzen da gazte asko; eten bat dago eskolaren eta eskolaz kanpoko eremuaren artean; are handiagoa adina gorantz doan heinean. Aisialdia eta lan mundua ez daude beti prestatuta gazte eta heldu euskaldunei euskara erabiltzeko guneak eskaintzeko, eta euskararen erronka nagusietakoa izango da lan esparruan euskaraz aritzeko aukerak sortzea. Hezkuntzaren bidez euskara jaso eta erabili duten gazte horiek lan esparruan euskara erabiltzeko aukerak irabaztea izango da etorkizuneko egitekoa.

Gure bizitzako edozein harremanetan geure egin dugun ingurune digitalari ere begira jartzea ezinbestekoa da. Etorkizuna ere ezin ulertuzkoa izango da tresna digitalik gabe; hizkuntza hegemonikoetan sortu eta kontsumitzeko dagoen aukera handiaren aurrean euskarak bere lekua bilatu beharko du eta horretarako beharrezko diren baldintzak ezarri beharko dira.

LAN-ILDOAK	EKIMENAK
EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.	EE.1.1.1. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.
	EE.1.1.2. Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin.
	EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.
	EE.1.1.4. Hezkuntzako, udaletako edo mankomunitateetako eta euskalgintzako eragileak elkarlanean, tokian tokiko hizkuntza proiektuen bidez, hiztun osoak ¹⁷ sortzeko estrategiak diseinatu eta ekimenak garatu, motibazio- eta gaitasun-sistemetan eraginez.
	EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.
	EE.1.1.6. Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi.
	EE.1.1.7. Euskarazko hedabideak bultzatu.
	EE.1.1.8. Euskarazko kultura produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko.
	EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.
	EE.1.1.10. Bereziki 16 urtetik beherako gazteak lehenetsi euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan.
	EE.1.1.11. Erakunde publikoek 16 urtetik beherako haur eta gazteentzat antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko jardueren ohiko hizkuntza euskara izan dadin neurriak hartu.
EE.1.2. Eremu sozio-geografiko euskaldunetan ¹⁸ bereziki bermatu familia-transmisioa, zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzea eta erabiltzea, euskarazko zaintza zerbitzuak eta euskararen komunitatea indartzeko ekimenak.	
EE.1.3. Eremu sozio-geografiko ez-euskaldunetan, babesgune izateko aukera duten eremuen mapa definitu eta esku-hartzeko sistema eraginkorrak bilatu.	
EE.1.4. Euskaldunen kopuru handiak dituzten eskualde-buruetan, hiriburuetan eta gune hiritartuetan bereziki eragin.	

17. *Aroaren testuingururako, hiztun osoa da lau trebetasunetan euskaraz komunikatzeko gaitasuna duen hiztuna, hau da, gizarte-funtzio guztiak euskaraz betetzeko gai dena.*

18. *Aroaren testuingururako, gune sozio-geografiko euskalduna da euskaldun kopuru handia duen eremua (auzoa, herria, eskualdea, harana...).* Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 3. edo 4. gune soziolinguistikoaren ezaugarriak dituen espazioa.

Ardatza: Berrikuntza

ERRONKA

B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.

Arazo jakin baten aurrean, ordura arteko ikusmira eta baliabideen bitartez erantzun beharrean, aukera askotarikoak esploratuz eta topatuz, irtenbide eraginkor eta jasangarriagoak lortzeko bidea egitea da berrikuntza. Arazo jakinari aurre eginez gizarte osoaren onura erdiesten da, irtenbide berriak gizarte osoarentzako onuragarri bihurtzen dira, eta ez zati batentzat bakarrik. Berrikuntzak gizarte eraldaketa sortzen du prozesuan baliatu diren lankidetzaren ereduengatik, baliabideengatik, sortu diren galdera berriengatik... eta azken emaitza ere eraldatzailea izan ohi da erantzun askotarikoak eta osoagoak lortzen diren neurrian.

Euskararen auziari erantzuteko dugun profesionalen ezagutza nahiz eskarmentua, eta metodologia frogatuak oinarri sendoa dira etorkizuneko berrikuntza-ekosistema eraikitzen jarraitzeko; euskara erakundeetan kudeatzeko plangintzak, euskara teknikarien ezagutza metatu osoa, euskalgintzaren eskarmentu eta antolakuntza gaitasuna eta beste asko.

Ahalmen handiko ekosistema honetan, berrikuntzarako ateak are gehiago irekitzea proposatzen du Aroak. Izan ere, gizartea aldatzen ari den neurrian, euskararen indarberitze prozesua bera ere aldatzea

dagokigu. Une honetako erronka sozialei ezin zaie iraganeko parametroetatik erantzun, eta euskararen kasuan ere irtenbide berriak eta globalagoak eskuratzeko beharra daukagu. Hortaz, Aroaren bidez, gaur egun dauzkagun eta aurrerago etorriko diren erronkei erantzun berritzaileak emateko bidea egin nahi dugu, espero gabekoari ere lekua eginez. Euskararen auziari lotuta mahai-gainean ditugun galderak edota ezagutzak zalantzan jarriz. Alde batetik, euskararen eremuko eragile askotarikoen arteko lankidetzaren sustatuz: testuinguru soziolinguistikoko eta lurralde ezberdinetako eragileak, euskara teknikariak eta eragile sozialak, erakunde publiko zein sozial eta pribatuak; lankidetzaren koordinatua eta ekonomikoki jasangarria, eraginkorra izanez. Beste alde batetik, euskararen ekosistematik eman diren erantzunak bestelako ekosistemekin harremanetan berreraikiz: migratzaile taldeak, talde feministak, ekologista taldeak, enpresa eta finantza mundua, ingurune digitalean eta teknologia berrietan adituak...

Prozesu edo produktu berritzaile arrakastatsuek eskala handira eramateko izan dezaketen aukeretan sakontzea ere egokituko da. Berrikuntzak erresistentziak ere sortzen ditu, eta horiek gainditzeko mekanismoak ezartzea kontuan hartu beharko da.

Ardatza: Ikerketa / Sistematizazioa

ERRONKA

IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

Euskararen indarberritzearen gaineko prozesu osoak, bere horretan, ikerketaren beharra dauka. Ezagutza berria sustatzeko bideratutako ekinbideak behar ditugu, alegia. Proba eta esplorazio betean dabilen hizkuntza komunitateak beharrezkoa du gertatzen ari denaren gaineko kontzientzia zientifikoa izatea, eta jakintza horietatik berritzen jarraitzea.

Euskara indarberritzeko prozesuaren bilakaeraren berri izateko tresnak edukitzea oinarritzkoa da. Ikerketa demolinguistikoek ematen digute gizarte honen argazki orokor bat, eta hizkuntza-politikatik egiten diren azterketek gaindi, edozein jakintza edo lan-eremutako ikerketetan ere euskararen aldagaia txertatzea izango da erronka bat.

Horrez gainera, euskararen egoeraren berri emango diguten ikerketa eremu eta metodologiaren lan ildoak zabaltzea beharra daukagu. Orain arte bereziki baliagarri gertatu zaigun soziolinguistika jakintza-eremuko begiradaz gain, bestelako iturriekin aberastea, hain zuzen: antropologia, psikolinguistika, feminismoa, biologia, ekonomia, matematika, teknologia... Arlo ezberdinetako jakintzen arteko sinergiek euskararen errealitateaz dugun begirada zorrotzen lagunduko digute, eta beraz, galdera zein erantzun berri zein osoagoak ematen.

Bide beretik, ikerketa kuantitatiboak duen balioaren parera eraman beharko genituzke ikerketa kualitatiboa eta esplorazioan oinarritzen diren praktika komunitarioak.

Aroaren ardatzek azaleratzen dituzten galderari erantzuna ematea ere izango da helburu bat. Euskara zeharkako politika gisa kudeatzeak dituen aukera eta onuren azterketa egitea, adibidez. Euskara gizartearen elementu kohesionatzaile izateko gakoak zein diren argitzea. Edo euskararen gaineko motibazioetan, ezagutzan edo erabilera gako berrietan sakontzea, besteak beste.

Aipamen berezia behar dute adimen artifizialak eta hizkuntza-teknologiak; izan ere, jokaleku globalean gertatzen ari den eraldaketa teknologikoan euskarak bere lekua izateko ikerketa ezinbestekoa izango du. Horrela, GAITUn adierazten dena kontuan hartuz, "Hizkuntza-teknologiaren barruan, azken urteotan gertatu diren hobekuntza handiek (*big data* delakoarekin eta sare neuronalekin, besteak beste) bigarren susperraldi bat eragin dezakete euskararen berreskurapen-prozesuan. Kualitatiboki askoz handiagoa izan daiteke bigarren bultzada hori gure gizartearen. Hizketaren tratamenduan, itzulpen automatikoan edo testuen analisisetan gertatu diren

hobekuntza nabarmenek modu esanguratsuan lagundu dezakete euskararen erabilera errazten eta zabaltzen¹⁹.

Horrek guztiak ezagutza partekatzeko sareak sortu eta baliatzea ere eskatzen du. Baita praktika on zein arrakastatsuak modu sistematizatuan zabaltzeko aukeretan sakondu eta errealitate berrietara egokitzeko kultura sortzea ere.

19. GAITU. *Hizkuntza-teknologien ekintza-plana 2021-2024*

Ardatza: Komunikazioa / Hedapena

ERRONKA

KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.


Aroan proposatu diren erronka, lan-ildo eta ekimenen egitekoa gauzatzea bezain garrantzitsua izango da ondo komunikatu eta gizartean hedatzea. Langintza horretan, ondo eta banan-banan aztertu beharko dira gauzatutako ekimenak. Ekimenetako partaideak eta gizartean leudekeen interesdunak kontuan hartzen dituen komunikazio eta hedapen estrategia eraginkorrek proposatu beharko dira.


Barrurantz zein kanporantz begirako komunikazioa garatzea esan nahi du horrek. Barrurantz, helburu berari erantzunez ekarpena egiten ari diren partaide guztien arteko komunikazio kanalak identifikatu eta partaideen arteko elkarreragina sustatuz. Eta kanporantz, berriz, ekimen jakinetik kanpo egon daitezkeen interesdunei informazioa eman eta ekarpenak egiteko aukerak eskainiz.

Horrez gain, gizartearen beharrei erantzuten dieten prozesu nahiz produktuen berri eman eta eskuragarri uztea ezinbestekoa izango da. Euskarazko eskaintzaren berri izateko erraztasunak eman beharko dira, herritarren interesak eta aukerak kontuan hartuta. Euskarazko produktuen eskaintza eta kontsumoa handitzeko estrategian komunikazioaren ikuspegitik egindako ekarpenek lagundu egingo dute horretan.

Komunikazio strategiaren egitekoa ere bada euskararen eta euskal kulturaren balioa indartzea. Garaiko erronkei erantzuten dien marka izan beharko luke euskararen eta euskal kulturaren markak. Horretarako, diskurtsoetan berrikuntza egitea ezinbestekoa izango da, baita horien zabalkunderako estrategietan sakontzea ere.







Jarraipena eta ebaluazioa

Aroa Marko Estrategikoa ebaluatzeko hiru bide proposatzen dira:

1. Euskararen bilakaerari buruzko ebaluazioa

Ohi bezala, euskararen bilakaerari buruzko ikerketa lerroak lantzen jarraituko du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak²⁰, iturri nagusi hauetatik, besteak beste:

- Inkesta Soziolinguistikoa
- Mapa Soziolinguistikoa
- ISEI-IVEI Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen Ebaluazio Diagnostikoa
- HABE
- EUSTAT: Atzerritar Jatorriko Biztanleen Inkesta
- Hizkuntzen erabileraren kale neurketa
- EAeko kultura programazioaren azterketa
- Euskararen Adierazle Sistema

2. Aroaren ikuspegiaren ebaluazioa

Aroak 2034 urterako ikuspegi jakin bat zehazten du. Markoaren arlo estrategikoa lantzerakoan adostu zen ikuspegi hori, eta horrek eman dio norabidea marko estrategiko osoaren planteamenduari. Hortaz, 2034rako aurreikusitako eszenatokirantz modu egokian goazen eta indarraldia bukatutakoan bertan gauden ikusteko, jarraipena egin beharko da.

Horrela, *Aroak* ebaluazio sistema propioa izango du, eta euskararen bilakaera neurtzeko ohiko ikerketez gain, ikuspegiari lotutako ebaluazio-lanketa bideratuko da. Lan hori gauzatzeko, berariazko batzorde bat eratuko da, eta horrek izango du *Aroaren* ikuspegian jasotako helburuei erantzuteko adierazle egokiak zehazteko ardura, bai eta sistema horren araberako lehenengo diagnostiko-txostena emateko ardura ere. Batzorde horrek finkatuko ditu 10 urteko ikuspegia duen marko estrategikoaren ebaluazio-tarteak eta moduak ere. Guztia ere, Euskararen Aholku Batzordeak *Aroa* marko estrategikoa onartzen duenetik urtebeteko epean egingo du, HPSren zerbitzu teknikoen laguntzarekin.

²⁰ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) edo Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politika arloko eskumena duen sailak.

Galdera hauei erantzungo dieten adierazleak lantzea proposatzen da:

- Euskararen transmisioa ziurtatuta dago?
- Euskal hiztun aktibo gehiago ditugu gizarte esparru guztietan?
- Ezagutzaren unibertsalizazioan aurrerapausoak eman dira?
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbiltzen ari dira?
- Gizartean behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak ematen zaizkie, eta euskara haiena ere badela sentitzen dute?
- Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak daude? Babesgune gehiago ditugu?
- Arnasguneen beheranzko joera eten egin da?
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute?
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin da?


3. Aroaren betetze maila: prozesuaren ebaluazioa

Euskararen Aholku Batzordetik sortutako *Aroa* marko estrategikoa garatzeko eta hedatzeko gonbidapena egiten zaie euskal erakundeei. Marko estrategikoa izanik –eta ez plangintza bat–, *Aroak* erakusten duen bidea aintzat hartuta, erakundeek osa ditzaketen plangintzek aurreikusi beharko dute ebaluazio-ildo hori; izan ere, plangintza, plangintzaldi edo programa zehatzei lotuta dago prozesuaren ebaluazioa.

HPSk du *Aroaren* jarraipena, ebaluazioa eta zabalkundea egiteko ardura. Ildo horretatik, gobernantza partekatua eta euskararen zeharkakotasuna gogoan, lan egingo du euskararen normalizazioan diharduten eragile guztiei aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egiteko erraztasunak eta tresnak eskaintzeko. Parte-hartze koordinatuari dei eginez, praktika onak partekatzeaz gain, HPSk elkarlanerako programak sustatuko ditu estrategikoak diren eremuetan.







Aroa osatzeko prozeduraren azalpena

DOKUMENTAZIOA OSATU

Prozedurari hasiera emateko, oinarrizko txosten eta azterlan batzuk osatzeko eskatu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

2021/12	Euskararen normalkuntzaren aukerak eta erronkak – gazteen eta udal teknikarien pertzepzioaz . Agirre Lehendakari Center
2022/03/31	<i>10 urteko ibilbideari begirada – ESEPen araberako diagnostikoa</i> . Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
2022/12	Euskarari buruzko iritziak – SOZIOMETROA. Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
2022	ETZIGARRIAK – dinamika gazteekin. Itxaso Payá Ruiz eta Zelako Kultur Ideiak kooperatiba Elkartea Txikia

ARLO ESTRATEGIKOA LANDU

Marko estrategiko berriaren arlo estrategikoa landu zen lehendabizi, hainbat lantalde, batzorde edota forotan egin ziren bilera eta dinamiken bidez. Horrela, 2022ko bukaerarako, arlo estrategikoa osatuta zegoen: AMIA (Aukerak – Mehatxuak – Indarguneak – Ahuleziak); Nahi Estrategikoa; Misioa; Ikuspegia eta Balioak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Lantaldea (HPS Taldea): HPSko sailburuordea, HABEko zuzendari nagusia, HPSko zuzendariak eta HPS zein HABEko zerbitzaburuak.

2022/03/29 HPS Taldeak 2022ko martxoaren 29an egindako bilerak eman zion hasiera marko estrategiko berria lantzeko bilera- eta dinamika-prozesuari. Arlo estrategikoa lantzeko beste hiru bilera ere egin zituen talde horrek 2022an: ekainaren 14an, urriaren 4an eta abenduaren 13an.

EABren ESEP Berritzeko Batzorde-atal Berezia.

Euskararen Aholku Batzorde Osoak, 2020ko abenduaren 2ko bileran, 4 batzorde-atal berri sortzeko proposamena ontzat eman zuen, horien artean ESEP Berritzeko Batzorde-atal Berezia. Horri jarraiki, 2022ko apirilaren 13ko akordioaren bidez honako hauek erabaki zituen EABren Osokoak: ESEP Berritzeko Batzorde-atala abian jartzea; Batzorde-atalaren funtzionamendu araudia onartzea; eta Batzorde-atalaren kideak izendatzea.

Behin araudia onartuta eta kideak izendatuta, ESEP Berritzeko Batzorde-atalak lehenengo bilera egin zuen 2022ko maiatzaren 4an, eta marko estrategiko berriaren arlo estrategikoa lantzeko beste bilera bat egin zuen 2022ko ekainaren 15ean.

ESEP Berritzeko Talde Eragilea.

ESEP Berritzeko Batzorde-atalaren zuzendariak, EABren idazkariak eta Idazkaritza Teknikoko kideak (HPSko hiru kide eta LKS enpresako kide bat) osatu zuten talde hau, bileren dinamizazioaz eta kudeaketaz arduratzeaz gain, sortutako dokumentu, ekarpen eta material guztiak bildu eta ustiatzeko. Ekainaren 10ean egin zuen lehengo bilera talde honek, eta marko estrategiko berriaren arlo estrategikoa lantzeko beste zortzi bilera egin zituen 2022an.

2022/09/27 **Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordearen (HAKOBA) bilera,** marko estrategiko berriaren arlo estrategikoa lantzeko.

ESEP Berritzeko Mintegia: arlo estrategikoa.

Mintegia burutu zen marko estrategiko berriaren arlo estrategikoaren gaineko azken ekarpenak jasotzeko eta eztabaida bideratzeko. ESEP Berritzeko Batzorde-atal Bereziko kideez gain, Mintegian parte hartu zuten EABren Osoko kide batzuek eta EABren gainontzeko batzorde-ataletako beste batzuek (Ingurune Digitala / Hizkuntza eta Generoa / Arlo Sozioekonomikoa).

EABren Osokoa.

2022/12/05 ESEP Berritzeko Batzorde-atal Bereziko zuzendariak marko estrategikoaren arlo estrategikoa aurkeztu zuen bileran.

ARLO OPERATIBOA LANDU

Marko estrategiko berriaren arlo operatiboa landu zen 2023an, arlo estrategikoan egindako lanketa oinarri hartuta.

ESEP Berritzeko Talde Eragilea.
 2023 Urtarrilaren 13an hasi eta hainbat bilera egin zituen Talde Eragileak 2023ko lanketa jaso eta kudeatzeko.

EABren ESEP Berritzeko Batzorde-atal Berezia.
 2023/04/27 Markoaren atal estrategikoa osatzeko ekarpenak aztertu eta osatu.

Erakundeetako euskara teknikariak: arlo operatiboaren aurkezpena.
 2023/05/30 Aroaren arlo operatiboa aurkeztu zen AriGara plataforman, erakundeetako euskara teknikariei begira.

Euskara eta Hizkuntza Aniztasuneko Batzordea.
 2023/06/09 Marko estrategiko berriaren arlo operatiboa aurkeztu zen Batzorde horretan eta ekarpenak jaso ziren. Horrez gain, 2023ko urriaren 6an kontraste bilera egin zen foro horretan.

EABren Ingurune Digitala Batzorde-atal Berezia.
 2023/06/26 Batzorde honetako kideekin arlo operatiboari buruzko bi kontraste saio egin ziren 2023an: ekainaren 26an eta urriaren 5ean.

Mintegia – Aroa, euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko marko estrategikoa.
 2023/07/05 Mintegia burutu zen marko estrategiko berriaren arlo operatiboaren gaineko azken ekarpenak jasotzeko eta eztabaida bideratzeko. Horrez gain, marko estrategiko berriaren izena aurkeztu zen (*Aroa*, euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko marko estrategikoa), eta hizkuntza-politika arloan ematen ari diren bestelako hausnarketa prozesuak eman ziren ezagutzera, Euskalgintzaren Kontseiluaren, Euskaltzaleen Topagunearen eta Eusko Ikaskuntza erakundearen eskutik.
 ESEP Berritzeko Batzorde-atal Bereziko kideez gain, Mintegian parte hartu zuten EABren Osoko eta EABren gainontzeko batzorde-ataletako hainbat kidek (Ingurune Digitala / Hizkuntza eta Generoa / Arlo Sozioekonomikoa); eta HAKOBAko partaide batzuek eta udaletako teknikari batzuek.


EABren ESEP Berritzeko Batzorde-atal Berezia.
 2023/12/12 Egoki ikusi zen *Aroa* marko estrategikoa EABren Osokoaren hurrengo bileran aurkeztea.

EABren Osokoa.
 2024/01/08 Egoki ikusi zen *Aroa* marko estrategikoa Gobernu Batzordera bidaltzea, onarpena eskatzeko.

Gobernu Batzordea.
 2024/01/30 Gobernu Batzordeak *Aroa* marko estrategikoa onartu zuen.







Bibliografia

ALC - Agirre Lehendakaria Center (2021). *Euskararen normalkuntzaren aukerak eta erronkak — gazteen eta udal teknikarien pertzepzioaz*.

EAS: Euskararen Adierazle Sistema.

Euskararen Aholku Batzordea (1999). *EBPN - Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN 978-84-457-1414-0

Euskararen Aholku Batzordea (2015). *ESEP - Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015: diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN 978-84-457-3389-9

Euskararen Aholku Batzordea (2016). *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN 978-84-457-3409-4

Euskararen Aholku Batzordea (2021). *Euskararen ingurune digitala. Gomendioak 2021-2024*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN 978-84-457-3592-3

Eusko Jaurlaritza (2021). *Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN 978-84-457-3630-2

Eusko Jaurlaritza (2022). *ESEP. 10 urteko ibilbideari begirada*. [Argitaratu gabea]

Eusko Jaurlaritza (2022). *Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN 987-84-457-3171-8

Eusko Jaurlaritza (2022). *GAITU. Hizkuntza-teknologiaren ekintza-plana 2021-2024*.

Eusko Jaurlaritza (2022). *Kirolean Euskara Sustatzeko Plana 2021-2024*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN 978-84-457-3652-4

Eusko Jaurlaritza (2023). *VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021: EAE*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritza (2023). *VII. Mapa Soziolinguistikoa 2021: EAE*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Lasarte-Oriako Udala eta Agirre Lehendakaria Center (2021). *Etorkizuneko euskara zerbitzua*.

Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2022). *Euskarari buruzko iritziak – SOZIOMETROA*.

Payá Ruiz, Itxaso (2022). *Etzigarriak – dinamika gazteekin*.

